


PLAN BEREZIA



BERMEOKO  
ALDE ZAHARRA

**A DOKUMENTUA  
MEMORIA (EUS)**

**Sustatzailea**  
**Promotor**



BERMEOKo UDALA  
AYUNTAMIENTO DE BERMEO

**Erredaktore-taldea**  
**Equipo redactor**



**Javier Martínez Callejo**  
Arkitekto Dr.

**Markel Bollar Arrate**  
Hirigintza abokatua

**Paula Amuchastegui Moreno**  
Arkitektoa

**Pablo Maguregui López**  
Arkitektoa

**Jon Ajuria Delgado**  
Arkitektoa

**Jesús Sola Jiménez**  
Geografia eta historian liz.



**Pilar Barraketa**  
Biologoa

**Mirari Elósegui**  
Geologoa


<b>INFORMAZIO MEMORIA.....</b>	<b>1</b>
0. AURKEZPENA.....	1
1.- Sarrera.....	1
2.- Plan Berezia berrikustearen beharra.....	1
3.- Babes eta kontserbaziorako Plan Berezi baten edukia.....	1
4.- Berrikuspen prozeduraren legezko enkoadraketa.....	2
5.- Erabilitako oinarriak.....	2
1. HIRIGINTZA PLANGINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA.....	3
0.- Lurralde eta arloko plangintza eta beste afekzio batzuk.....	3
1.- Indarrean dagoen hirigintza-plangintza.....	4
2.- Eremuaren mugaketa.....	4
3.- Hirigintza eta errolda mugaketa.....	4
4.- Eremuan egindako azterlanak.....	6
5.- Kartografia historikoa.....	7
6.- Eremuko planimetria.....	9
2. ERAIKUNTZARI BURUZKO INFORMAZIOA.....	10
1.- Eraikuntza motak.....	10
2.- Eraikuntzaren egoera.....	10
3.- Eraikuntzaren adinak.....	11
4.- Eraikinen interes arkitektonikoa.....	14
5.- Bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzak.....	14
3. LURZORUEN ERABILERARI BURUZKO INFORMAZIOA.....	15
1.- Lurzoruaren okupazioa.....	15
2.- Etxebizitza erabilera nagusizat duten eraikinak.....	15
3.- Eraikinen okupazio maila.....	16
4.- Gune libreak eta herri-ekipamenduak.....	16
4. GIZARTEARI BURUZKO INFORMAZIOA.....	18
1.- Aurkezpena.....	18
2.- Kokapen geografikoa eta lurraldea.....	18
3.- Alde Zaharreko biztanleriaren alde aurreko azterketa.....	18
3.1.- Biztanleriaren jatorria.....	19
3.2.- Biztanleriaren egitura adin eta sexuaren arabaera.....	20
3.3.- Ikasketa maila.....	26
3.4.- Gaztetasun eta zahartze indizeak.....	27
3.5.- Konparaketa 2001-2017.....	27
4.- Etxebizitza-ehunaren bilakaera.....	28
5.- Ekoizpen jarduera eta egitura ekonomikoaren bilakaera.....	28
5.- 2018ko ekaineko azterketa sozio-demografikoa.....	30
5.1. Biztanleriaren ezaugarri demografikoak.....	30
5.2. Biztanleriaren ezaugarri soziologikoak.....	31
5.3. Auzoan antzemandako beharrak.....	32
5.4. Biztanleriaren pertzepzioa bere etxebizitza kokatzen den eraikinari buruz.....	33
5.5. Biztanleriaren pertzepzioa bere etxebizitza propioari buruz.....	34
6.- 2018ko ekaineko azterketa sozio-ekonomikoa.....	38
6.1. Adierazle sozio-ekonomikoak.....	38
7.- Elkartek.....	39
8.- Azken ondorio batzuk.....	40
9. 2018ko ekaineko azterketa soziologikoaren metodologia.....	41
5. HIRI-ZERBITZUERI BURUZKO INFORMAZIOA.....	42

1.- Udalak kudeatutako sareak .....	42
1.1.- Ur-hornidura sarea.....	42
1.2.- Saneamendu sarea-hondakin urak .....	42
1.3.- Saneamendu sarea-euri urak .....	42
1.4.- Herri-argiteria .....	43
2.- Udalaz kanpo kudeatutako sareak.....	43
2.1.- Elektrizitate sarea .....	43
2.2.- Gas sarea .....	43
2.3.- Telekomunikazio sarea .....	43
2.4.- Hiriko hondakin solidoak .....	44
6. MUGIKORTASUNA ETA ESPARRU PUBLIKOEN IRISGARRITASUNA .....	46
1.- Bide sarea.....	46
2.- Mugikortasun publiko eta pribatua .....	47
7. INGURUMEN BALDINTZAPENAK .....	48
1.- Hiriko ingurumenaren analisi labur bat.....	48
2.- Eremuko ingurumen arazoak .....	49
2.1.- Zarata .....	49
2.2.- Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua.....	49
2.3.- Ingurumen eta teknologi arriskuak .....	50
8. KULTURA ONDAREA .....	51
ONDARE HISTORIKO-ARKITEKTONIKOA .....	51
ONDARE ARKEOLOGIKOA .....	51
KATALOGATUTAKO ELEMENTUEN BABESA .....	52
9. HIRI-LURZORU ETA INDARREAN DAGOEN PLANGINTZAREN ANALISI OROKORRA.....	60
1.- Gaur egungo hiri-antolaketa eredia .....	60
2.- Indarrean dagoen plangintza .....	62
3.- Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua .....	62
10. RESULTADO DE LAS CONSULTAS PREVIAS REALIZADAS .....	64
1.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA .....	64
Lurralde Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren Txostena. Lurralde Antolamendu Atala .....	64
Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren txostena. Ingurumen Ebaluazio Atala .....	64
Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren txostena. Biodibertsitate eta Paisaia Atala .....	64
Kultura Ondare Zerbitzuaren txostena .....	65
2.- EUSKO JAURLARITZA .....	65
Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren txostena .....	65
Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostena .....	66
3.- BESTE ERAKUNDE BATZUK .....	66
Euskal Herriko Itsasertz Mugartearen txostena .....	66
Telekomunikazioen Sare eta Operadoreen Azpi-zuzendaritza Orokorraren txostena.....	66
Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena .....	67
Euskal Uraren Agentzia - URA.....	67
11. AURRERAKINAREN PARTE-HARTZE ETA JENDAURREKO ERAKUSTALDIAREN EMAITZA .....	68
12. HASIERAKO ONARPENERAKO DOKUMENTUARI BURUZKO ALDEZ-AURREKO TXOSTENAK.....	69
Euskal Uraren Agentzia - URA.....	69
Euskal Herriko Itsasertz Mugartearen txostena .....	69

<b>ANTOLAKETAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA.....</b>	<b>70</b>
--	-----------

PLANGINTZAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK.....	70
1.- Irizpideak.....	70
2.- Helburuak.....	72
PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA .....	74
1.- Deskribapen orokorra eta balizko hautabideak.....	74
2.- Justifikazioa goi-mailako plangintzaren ikuspegitik.....	76
3.- Proposatutako bizitegi ereduaren justifikazioa:.....	76
4.- Proposatutako ekonomi-jarduera ereduaren justifikazioa:.....	76
5.- Proposatutako ekipamendu eta azpiegitura ereduaren justifikazioa:.....	76
DOKUMENTAZIO GRAFIKOAREN AURKIBIDEA .....	79

FASE HONEN KOKAPENA PLAN BEREZIAREN TRAMITAZIOAREN BARRUAN (KOLORE BERDEZ NABARMENDUA)



## INFORMAZIO MEMORIA

---

### 0. AURKEZPENA.

#### 1.- Sarrera.

2016ko abenduaren 19ko Tokiko Gobernu Batzarraren akordio bitartez, Bermeoko Udalak indarrean dauden alde zaharraren Plan Bereziaren berrikuspena egiteko lanak kontratatzeko espedientea hastea erabaki zuen. Bera idazteko hautaketa lehiaketa prozedura egin ondoren, 2017ko apirilaren 12ko Tokiko Gobernu Batzarraren akordio bidez, bere idazketa Hirigintza Teknikariak, S.L.P. – HIRITEK enpresari esleitzea erabaki zen.

#### 2.- Plan Berezia berrikustearen beharra.

Indarrean dagoen Bermeoko alde zaharraren Plan Berezia 90. hamarkadako bukaerakoa da. Martxoaren 26ko 233/2001 Hirigintza Saileko Foru Aginduaren bidez (HI-204/99-P2 espedientea), Bermeoko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia Monumentu Multzoa izendapena eman zuen abenduaren 22ko 396/1998 Eusko Jaurilaritza Dekretuaren neurria egokitzeko behin betiko onartu zen. Bere araudia 2001eko irailaren 27ko 186. zk. BAOean argitaratu zen, era horretan indarrean sartuz Udal Harreman eta Hirigintza Sailaren abenduaren 2ko 1975/2004 Foru Agindu bidez onartu zen behin betiko bere 66 (estalkiak) eta 53 (barneko edo lur-zatiko patioak) artikuluei zegokion aldaketa. Aldaketa hau 2005eko ekainaren 24ko 186. zk. BAOean argitaratu zen.

Plan Bereziak ez zuen aurreikusten bere araudian zeintzuk ziren bere berrikuspena erabakitzeko baldintzak. Ordea, bere indarraldia mugagabea zela esaten zuen, beti ere unean uneko zuzenketak egiteko ahalmenarekin (6. artikulua). Aldaketa bakarra izan du.

Hala ere, Administrazioaren *ius variandi* ahalmenaren jardunean, eta kontutan hartuta antzeman dela beharizan material bat, ez bakarrik legezkoa, Plan Bereziaren berrikuspenerako, urte guzti hauetan zenbait aldaketa izan baitira hirigintza, lurralde eta arloko araudia, gizartearen eta ekonomiaren egoera, diseinu grafikoa, oinarri topografikoen zehaztasuna eta informazio geografikoko sistema modernoan erabilgarritasuna dagokionez, bidezkoa da Plan Bereziaren zehaztapenak berrikustea.

#### 3.- Babes eta kontserbaziorako Plan Berezi baten edukia.

Babes eta zaintzarako Plan Berezi baten xedea nagusia da lan orokorretan jasota dagoen antolamendua osatzea, planen zehaztapenek xede dituzten elementu naturalak edota artifizialak babesteko arauen bidez. Beharrezkoa bada, udalerriko plan orokorrean jaso gabeko beste babes-arau osagarriak ere zehaztu dezake. Halakotzat kalifikatutako eta sailkatutako ondasun kulturalen babes-araubidea ere jasoko du –bakoitzaren hasierako eta deklarazioko espedienteen arabera, eta babes-araubide hori beren helburuen arabera garatu ahal izango du, kultura ondarearen gordetzea eta, kulturaren ikuspegitik, planean aurreikusitako garapen eremuan bere integraztea bermatuz, mantentze eta kudeaketarako neurri zehatzak proposatuz. Jasoko ditu ere antolamendu xehatuari dagozkion zehaztapenak eta erdietsi behar dituzten helburuen arabera agiriak.

Bera idazterako orduan, arreta berezia jarri beharko zaio antolatze-eremuaren ezaugarri sozio-ekonomikoei, inguruko gainerako baldintzapenei eta Udalbatzak gaiari buruz adierazten dituen irizpideei.

Plan Berezia berriak balio du ere bai hirigintza, lurralde antolaketa eta arloko araudian, bai ingurumen, irisgarritasun, eraikuntza, ondarearen babes eta etxebizitza arloko araudian izandako nobedadeak sartzeko.

Ondoko dokumentuez osatzen da:

- A. Memoria.
- B. Araudia eta ordenantzak.
- C. Fitxak eta katalogoa.
- D. Jarduketa programa eta ekonomia eta finantza iraunkortasunari buruzko azterlan.
- E. Planoak.

Aurre dokumentu osagarri gisa, bere azterlan sozio-urbanistikoa eta ingurumen azterlan estrategikoa ditu.

#### **4.- Berrikuspen prozeduraren legezko enkoadraketa.**

Plan Berezia bera, Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 95.1 artikulua ezarritako edukiarekin eta testu bereko 97 artikuluan finkatutako tramitazioa jarraituz, hasierako onarpena jasoko du eta jendaurrean jarriko da hiritar oroko egiteko komenigarritzat jotzen dituen alegazioak. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren txostena jaso beharko du ere, loteslea izango dena kultura-intereseko higiezin abierazte-ebazpenetan edo behin betiko kalifikazio ezbazpenetan ezarritako babes-erregimenari dagokionez. Pasatuko zaie ere eremuan eskumenak edo interesak dituzten erakunde guztiei (Aldundiaren kultura ondarearen zerbitzua, itsasertzak portuak...). Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. BAOean argitarau ondoren, Plan Berezia berria indarrean jarriko da.

Plan Berezia ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuko prozedura jaso du. Hau hasi zen Aurrerakinari erantsiz ingurumen dokumentu estrategikoa bat Ingurumen Ebaluazio Estrategikoko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29 artikulua ezarritako edukiarekin.

#### **5.- Erabilitako oinarriak.**

Kartografia: plano kartografiko digital bezala udal zerbitzu teknikoek 1/500 eskalan emandakoa erabili da, orain duela gutxi egindakoa.

Katastroa: kartografia bat dator Bizkaiko Foru Aldundiko katastro-zerbitzuak helarazitakoarekin, formatu digitalean, 2016ko irailean.

Lurralde plangintza eta arloko afekzioak: dagozkion planoetan sartu da, eskudun diren arloko administrazioen kartografi digitaleko zerbitzuetatik hartuz. Geuskadi web zerbitzua azpimarratu behar da. Informazioa 2017ko ekainean eguneratua dago.

Zerbitzu-sareak: Iberdrola eta Naturgas konpainia hornitzaileak emandakoa kenduta, ez dago oraindik eskuragarri sare guztien informazio xehatua.

Edonola ere, sistema geodesiko ofizial bezala ETRS89 hartzen da. Erabilitako oinarriak ortofoto digitalekin eta tokiko lanarekin kontrastatu dira.



# 1. HIRIGINTZA PLANGINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA.

## 0.- Lurralde eta arloko plangintza eta beste afekzio batzuk.

Euskal Herriko Lurralde Antolamenduko legea onartu zenean lurralde antolamendurako tresna berriak agertu ziren Euskadin: Artezpideak, Lurralde Arloko Planak eta Lurralde Zatiko Planak (Plan Berezia beraiei egokitu beharko da nolabait, HAPO jarraituz ere). Tresna hauek ahalbideratu dute, lehen aldiz, abian jartzea lurralde antolamenduko sistema oso bat.

Antolamendurako Artezpideak dira lurralde erreferentzia esparru arloko politikak orientatzeko eta udal plangintzak koordinatzeko. Beraien berrikuspena uztailaren 30eko 128/2019 Dekretu bidez onartu da.

Bestalde, lurralde zatiko plangintzari dagokionez, Bermeo udalerrria Gernika-Markina eskualde-egituran sartua dago. Bere Lurralde Zatiko Plana behin betiko onartua dago (martxoaren 1eko 31/2016 Dekretua).

Lurralde arloko plangintzari dagokionez, hasiera batean Bermeori ondoko lurralde plangintza tresnek egiten diote eragin:

- *EAEko Hezeguneen LAP (hasiera batean ez da aplikagarri alde zaharrear)*
- *EAEko Trenbide Sarearen LAP (hasiera batean ez da aplikagarri alde zaharrear)*
- *EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeneko LAP*
- *EAEko Itsasertza Babestu eta Antolatzeneko LAP*
- *EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeneko LAP*
- *Nekazaritza Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala (hasiera batean ez da aplikagarri alde zaharrear)*
- *Bizkaiko Errepideen Plana (saihesbidea eraikitzeneko tartek kenduta)*

Hauek dira idazten edo tramitatzen ari diren dokumentuak:

- *Euskadiko Portuen Lurralde Plan Sektoriala*
- *Etxebizitzaren Sustapen Publikorako Lurralde Plan Sektoriala*
- *Kultura Ondarearen Lurralde Plan Sektoriala*
- *Sare Intermodalaren eta Garraioaren Logistikaren Lurralde Plan Sektoriala*

EAEEn onartutako lurralde plangintzako beste tresna batzuk alde zaharrear eragina izan dezaketenak hauek dira:

- *Euskal Herriko Uhoaldeak Prebenitzeko Plan Integrala (UPPI)*
- *Bizkaiko Hiriko Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala 2005-2016 (berrikusi gabea)*
- *Euskal Herriko Lurzoru Kutsatuen Plan Orokorra (2007-2012; berrikusi gabea)*
- *Klima Aldaketaren aurkako ekintzen Euskal Plana*
- *Bizkaiko Bizikleta Plana*

Beste afekzio esanguratsu bezala, ondokoak nabarmendu daitezke:

- *Bermeoko Portutik datozen zortasunak.*
- *Itsasertzeko zortasunak.*

## 1.- Indarrean dagoen hirigintza-plangintza.

Indarrean dagoen Bermoko Alde Zaharreko Plan Berezia, martxoaren 26ko 233/2001 Hirigintza Saileko Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko. Bere araudia Bere araudia 2001eko irailaren 27ko 186. zk. BAOean argitaratu zen, era horretan indarrean sartuz. Plan Berezia honek ea hamarkada bateko indarraldia izan zuen uztailaren 10eko 1331/1991 Foru Agindu bidez onartutako beste bat ordezkatzeko zuen.

Bere osteko Plan Orokorraren behin betiko onarpena eta indarrean sartzeak (2012ko irailaren 20ko osoko bilkura) Plan Berezia eremuari dagozkion zehaztapenen analisia eta azterketa behar du, bere mugaketa Monumentu Multzoaren mugaketaren ezberdina baita. Bere 6.2.1. A.0. (Zero area) Lurralde Arearako Xedapenak artikuluan islatzen da. Hala ere, HAPOeko hirigintzako araudiak xedapen ugari jasotzen ditu alde zaharrean direnak aplikagarri. Horrela, adibidez, 2. Kapituluako 3. SEKZIOA (E-1 ALDE ZAHARREKO EGOITZA ERABILERA DUTEN ZONEN ERABILERA ERREGIMENA), 3.2.13 eta hurrengoko artikuluek, zenbait eraikuntza eta erabilera parametro xehatu jasotzen dituzte. Honek eragiten dio, neurri batean, gaur egungo Plan Berezia ordenantza dokumentuari.

Plan Berezia berrikuspenerako lanen barruan Aurrerakin bat idatzi zen (jendaurreko erakustaldia gauzatua jada). Aurrerakinean etorkizuneko jarduketara egituratzailer bezala planteatzen ziren Alde Zaharreko sarbide nagusien indartzea (Intxausti kalea eta Nardiz tar Jon), ipar-ekialdeko eremu publikoen berrantolaketa, ospitalea eta Arresi-Ongintza kaleen artean, eta portua eta alde zaharraren hego-ekialdeko muturraren arteko lotura bukatzea zeharkatu daitezkeen eraikin singular baten bidez.

## 2.- Eremuaren mugaketa.


Aztartzen ari garen gunean zenbait mugaketa gainjartzen dira, Aurrerakinaren 06 planoan zehazten direnak grafikoki:

- Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean (HAPO) mugatutakoa.
- Bermeoko Portuko Plan Berezia mugaketa.
- 2001eko Alde Zaharreko Plan Berezian mugatutakoa.
- Birgaitze Integratuko Eremuaren (BIE) mugaketa.
- Bermeoko Alde Zaharreko Monumentu Multzoaren mugaketa.
- Bermeoko Alde Zaharreko Gune Arkeologikoaren mugaketa.
- Tramitatzen ari den Alde Zaharreko Plan Berezian mugatutakoa.


Azken hau hautatu da (Aurrerakinaren AI\_O\_01.0\_MUGAKETA planoan zehazten zen jada), Bermeoko Udalak sustatutako berpizte eta berroneratze ekintzak era eraginkorrean gauzatzeko eremua hartzen baitu.

## 3.- Hirigintza eta errolda mugaketa.

Hirigintzako mugaketa HAPOean eta indarrean dagoen Plan Berezian dator, nahiz eta ez datozen bat mugaketa biak. Ez datoz bat ere BIEren mugaketarekin. Esan behar da Plan Berezia eremu bost sektoretan mugatua dagoela (grafikoki islatzen dira I.1\_SEKTOREAK planoan). Aurrerago ikusiko denez, sektore hauek erreferentzia bat dira zenbait adierazleei dagokionez.




**2017ko plan bereziaren antolaketa eremua.**



**Plan Bereziaren mugaketa Bermeoko HAPOean.**

Errolda-mugaketari dagokionez, estatistika ikuspuntutik hiru ataletan banatua dago: 001 (ipar-ekialdea), 002 (ipar-mendebaldea) eta 003 (hegoaldea).



**Bermeoko erroldako eremuaren planoak.**

#### **4.- Eremuan egindako azterlanak.**

Bermeoko Alde Zaharrari buruzko zenbait plan, programa, azterlan eta dokumentuen edukia aztertu eta kontutatu izan da. Hau da beraien zerrenda:

- Bermeoko Alde Zaharraren Plan Bereziaren Herritarren parte-hartze programa edo HPP (2017ko ekaina).
- Bermeoko Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (2012ko apirila).
- Bermeoko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia (2001eko iraila).
- Bermeoko Portuko Plan Berezia (2001eko abuztua) eta bere berrikuspina (2017).
- Bermeo udalerriko Merkataritza Suspertzeko Plana (2010eko abendua).
- Bermeoko Edertze-ekintzen Plana (2012ko abendua).
- Bermeoko Irisgarritasun-plana (2015).
- Alde Zaharrera sartzeko protokoloa (2016)
- Bermeoko Zaraten Planoa (2016ko otsaila).
- Bermeo Hiribilduko hiri-mugikortasun eta aparkaleku plana (2009ko maiatza).
- Suteak itzaltzeko ibilgailuak alde zaharrera sartzeko protokoloa (2XXX).
- Udal ordenantzak (aldamioak, orubeak, birgaitze pribaturako laguntzak, kaleko salmenta, Udalari dagokion aprobetxamenduaren kudeaketa, rotulo eta iragarkiak, oinezkoen bideak, ibiak, ostalaritza jarduerak, mahai eta terrazak).
- Bermeoko Alde Zaharreko Suspertze Planaren AMSA analisia (ahuleziak-mehatxuak-sendotasunak-aukerak) (2015eko abendua).
- Hurtado de Mendoza kaleko orube hutsari buruzko parte-hartze prozeduraren sintesia (2017ko martxoa).
- Bermeoko Azterlan historiko-arkeologikoa (1994-1995).

## 5.- Kartografia historikoa.

Sasoi ezberdinetako kartografia historikoa dago. Bertan ikus daiteke hiri-bilbearen bilakaera mendeetan zehar. Antzeman daiteke bera ikusita bide eta etxarteen egitura nagusia nahiko egonkor mantendu dela denboran zehar.

Ondoko irudietan ikus daitezke zenbait adibide.



1800



1820



1920



2000

Badaude ere aire-argazki sorta historiko bat (1945 urtetik). Beraien bidez ikus daiteke hiri-bilbe eta eraikuntzaren bilakaera azken zazpi hamarkaden zehar.



**1945-46 Amerikarra 0,50m**



**1956-57 Amerikarra 0,50m**



**1965 BFA**



**1977-78 Ministeritzakoa**



**1983 BFA**



**1995 BFA**



**2002 BFA**



**2010 BFA**



2016 BFA

## 6.- Eremuko planimetria.

Eremuaren kartografia asko dago. Oinarri bezala erabilia eguneratuen dagoen Udalak berak helarazitakoa da. Zenbait kasutan eguneratu beharra egon da ed50 sistematik etrs89 sistemara.



Bermeoko Udalak helarazitako plano topografikoa etrs89 sisteman.

## 2. ERAIKUNTZARI BURUZKO INFORMAZIOA.

### 1.- Eraikuntza motak.

Eremuko eraikuntza-unitateak sail "gotiko" tipologia sartzan dira gehien bat. Minoritarioak dira tipologia lineala, bloke irekikoa eta isolatua.

Sail "gotiko"ko tipologia mehelin arteko hormarte estuko eraikinekin bat dator, erdi aroko hiribilduen adierazgarri. Alde zahar osoan zehar banatua dago, baina mantentzen da gehien bat zeharkako ardatzetan (Aurrekoetxea, Intxausti-Bidebarrieta, Nardiz tar Jon-Arostegi, Erremedio).

Etxarteko izaera linealeko mehelin arteko tipologia erdi aroko hiribilduko hormarteak baino handiagoak dituzten mehelin arteko eraikinekin bat dator. Alde zahar osoan zehar banatzen da ere, baina gutxiago. Bere adierazgarri nagusia Arresi kalea da.

Bloke irekiko tipologia eraikin hauekin bat dator: aurreko lur-zatiak aldatuz edo erreferentzia historiko gabeko kokapen berrietan ezarritako mugarteko patiodun bloke bakarreko eraikinak. Alde zahar osoan zehar ikus daiteke, adibide isolatu baina esanguratsuetan, adibidez Aldatseta kalean.

Eraikin isolatuko tipologia jatorrizko hiri-bilbetik kanpoko kokapenekin bat dator, hau da, gehien bat ekipamendurako eraikin singularrekin, esateko Itsas Gizarte Institutua, Komandantzia, etab.

### 2.- Eraikuntzaren egoera.

Azterketa eremuko higiezinak kontserbazio egoera ezberdina dute, eraikin mota anitzeko eremu bat baita, eraikuntza urte ezberdinekoak eta eraikin mota ezberdinekoak (hormigoia, egurra edo mistoa ere).

Indarrean dagoen Alde Zaharreko Plan Bereziak ondoko datuak jasotzen zituen, 2001 urtea baino aurrekoak, bere azterlan sozio-urbanistikoan. Etxebizitza eraikinen egoerari buruz, 425 eraikinetan 2.065 etxebizitza izanik, ondokoa ondorioztatzen zuen:

- Eraikinen %71-ri zegokionez, non etxebizitzaren %79 kokatzen zen, mantentze egoera onean zeudela esan zitekeen.
- Eraikinen %17-ri zegokionez, non etxebizitzaren %14 kokatzen zen, mantentze egoera ertainean zeudela esan zitekeen.
- Eraikinen %2-ri zegokionez, non etxebizitzaren %1 kokatzen zen, mantentze egoera txarrean zeudela esan zitekeen.

Ematen zen etxebizitza proportzioa eraikineko handiagoa zela egoera onean zeudenen artean eraikin berriak zirelako, eta beraz, okupazioa beraietan handiagoa zelako.

2018ko azterlan sozio-urbanistikoa egiteko eraikuntza unitate guztiak berraztertu dira eta esan daiteke, orokorrean, eraikinen egoera hobetu egin dela 2001etik hona, nahiz eta gabeziak dauden oraindik. Nahiz eta etxebizitza eraikinen kopurua apur bat baxuagoa izan (416), etxebizitza kopurua gehitu egin da (2.225). Gehitu egin da ere apur bat huts dauden orubeen kopurua, jatorrizko eraikuntza desagertu egin delako.

Hala ere, eraikuntza unitate bakoitzaren banakako fitxan ikus daiteke bere egoera bereziaren balorazioa.



Gaur egungo Plan Bereziaren indarraldian (1992ko Planaren indarraldian ere) birgaitze obra bolumen handia izan da, gehien bat Berualak kudeatua, birgaitzerako laguntza eta inbertsio bitartez, eraikinen egoera erabat hobetu duena eta baita ere etxebizitzaren konfort maila eta ekipamendua.


### 3.- Eraikuntzaren adinak.

Eraikuntzaren adinei dagokionez, 2001eko sozio-urbanistikoak ondoko datuak jasotzen zituen:

- 1900 urtea baino aurrekoak: 730 etxebizitza (%35) 198 eraikinetan (%47).
- 1900 urtetik 1940 urtera: 535 etxebizitza (%26) 120 eraikinetan (%28).
- 1940 urtetik 1960 urtera: 435 etxebizitza (%22) 57 eraikinetan (%13).
- 1960 urtetik 1990 urtera: 347 etxebizitza (%17) 50 eraikinetan (%12).

Uste zen, nahiz eta eraikin asko egon jatorriz XIX. mendea baino aurrekoak, orokorrean, gunearen irudiaren behin betiko finkapena XX. mendean eman zela eraberritze, altxatze eta antzeko ekintzen bidez, eta sustapenak gaur egunera hurbiltzen ziren neurrian, hala gehitzen zela ere eraikin bakoitzeko zeuden etxebizitzak.

2001 urtetik eraikuntza berriko ekintzak tamaina txikikoak izan dira alde zaharreko morfologia eta baldintzak errespetatzen zituzten birgaitze integralekoekin konparatuta. Beraz, ematen da aldaketa ez dela izan oso nabarmena, nahiz eta dagokion planoan ikus daitezkeen zenbait jarduketa.




**Etxebizitza eraikinen antzintasuna adierazten duen planoak.**

Datu eguneratuak ondoko hauek dira:


- **1900 baino aurrekoak:** 730 etxebizitza (%35) 159 eraikinetan (%38).




- **1900 urtetik 1940 urtera:** 535 etxebizitza (%31) 128 eraikinetan (%31).



- **1940 urtetik 1980 urtera:** 435 etxebizitza (%22) 91 eraikinetan (%22).



- **1980 urtetik 2018 urtera:** 347 etxebizitza (%17) 37 eraikinetan (%9).



#### **4.- Eraikinen interes arkitektonikoa.**

Eraikinen interes arkitektonikoa (era orokorrean eta, zenbait kasutan, era xehatuan) altua da eta horren adierazgarri da bere aitortpena Monumentu Multzo bezala. Azterlan honen 8. atalean aztertzen da sakonago ikuspegi hau.

#### **5.- Bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzak.**

Eraikuntza-unitateen bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzak 2018ko azterlan sozio-urbanistikoaren banakako fitxetan jasotzen dira.

Orokorrean, sukalde independentea, egongela, logelak, bainu-gela eta trastelekua dute. Etxebizitzen %12k logelaren batek beste logela batetik du sarbidea, eta etxebizitzen %20 logelak dituzte kanpora ematen duen leihoak ez duenik.

Etxebizitzek 80 metro koadroko batez besteko tamaina dute. Etxebizitzen %70 61 eta 120 metro koadro artean dute. Ordea, soilik %6k dauka 120 metro koadro baino azalera handiagoa.

Etxebizitzen laurden batek ez du inolako arazorik inkestatu diren pertsonen arabera. Kanpotik datozen zaratak dira Bermeoko alde zaharrean bizi diren pertsonen jasotzen duten eragozpen nagusia. Neurri txikiago batean datoz hezetasunak eta toki falta.

Irisgarritasuna mugatua da eraikin askotan, ez baitute igogailurik eta amankomuneko esparruak ez baitaude egokituak. Hala ere, aurrerapen handi bat ikusten da 2001 urtetik hona.

### 3. LURZORUEN ERABILERARI BURUZKO INFORMAZIOA.

#### 1.- Lurzoruaren okupazioa.

Aztertzen ari den eremuaren azalera ondoko eran banatzen dira:


EREMUAREN AZALERA OSOA	138.119 m <sup>2</sup>
Bizitegirako eremua	53.632 m <sup>2</sup>
Gune libreak	13.234 m <sup>2</sup>
Ekipamenduak	11.259 m <sup>2</sup>
Portuko SOeko eraikinak	2.585 m <sup>2</sup>
Bideak eta portua	57.409 m <sup>2</sup>

Finkatze maila oso altua da, eta apurrak dira bete gabeko esparruak.

#### 2.- Etxebizitza erabilera nagusizat duten eraikinak.

Alde zaharreko erabilera nagusia bizitegia da. 2001 urtean 425 etxebizitza eraikin zeuden, eta beraien baitan 2.065 bizitza.

2018 urtean ikusi zen bizitegi-eraikinen kopurua apur bat txikiagoa zela (416), baina ordea etxebizitza kopurua gehitu egin dela (2.225), agian eraikuntza berriak izan direlako. Adierazi denez jada, orube hutsen kopurua zerbait gehitu da, alde zahar guztian zehar bananduta, eraikuntza zaharra desagertzen joan den neurrian.



Etxebizitza-eraikinen planoa.



Orubeen plano.

### 3.- Eraikinen okupazio maila.

Etxebizitza okupazio maila (eta datu hau, erabat okupazio gabe dauden eraikinen kasua kenduta, eraikinetara ekar daiteke) %31-koa zen 2001 urtean (Bermeoko gainerakoan %20 zen). Aurreko ataletan esan den bezala, alde zaharreko biztanle kopuruak erabat behera egin du eta orain, 2018ko datuen arabera, 3.265 biztanlekoa da. Uste da hau jatorrizko biztanleen heriotzak direla eta dela, eta ez horrenbeste auzokoak beste toki batzuetara joan direlako. Azken datu estatistiko ofizialek (2011ko INEren erroldakoak) diote okupatu gabeko etxebizitza portzentajea %18,4 dela Bermeorako. Beraz, uste da benetako etxebizitza hutsen indizea %30 inguruan izan daitekeela. Plan Berezi berriaren idazketaren hurrengo faseetan osatzen joango dira datu hauek HGZren udal-zerrendakoak gehituz.

Merkataritza lokalen okupazio mailari dagokionez, eguneratutako jarduera planoan jasotzen da bisualki. Bertan aniztasun handia erakusten da, baina batia ere lokal hutsen kopuru esanguratsu bat.

### 4.- Gune libreak eta herri-ekipamenduak.

Ondokoak dira:

#### Gune librean eta gune berdeen Sistema Orokorra:

Parque de Lamera Parkea	12.110 m <sup>2</sup>	Orokor publikoa
Mikel Deunaren Enparantza	1.130 m <sup>2</sup>	Orokor publikoa
Prantzisko Deuna Atea	280 m <sup>2</sup>	Orokor publikoa

**Gune libreen eta gune berdeen Tokiko Sistema:**

Arana tar Sabin Enparantza	1.270 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Gaztelu Begiratokia (sarbide publikokoka)	310 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Bazterra Ibiltokia	490 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Andra Mari Kaleko gune librea	440 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
San Juan ate ondoko gune librea	60 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Irakaskintza-Ongintza Kaleko gune librea	120 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Josefindarren gune librea	420 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Intxausti Kaleko gune librea	100 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Hurtado de Mendozako gune librea	181 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Kardenalaren Kalea	110 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Aurrekoetxea Kaleko gune librea	160 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Aurrekoetxea Kalea 18-ko gune librea	130 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Aurrekoetxea Kaleko gune librea	170 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa
Areilza Kaleko gune librea	40 m <sup>2</sup>	Tokiko publikoa

**Herri-ekipamenduko Sistema Orokorra:**

Osasun eta Ongizate Patronatua	Administrazio Zerbitzu Orokorrak	Orokorra
Gizarte eta Kultura Etxea	Kultura	Orokorra
Nautika-eskola	Hezkuntza	Orokorra
J. A. Egia Udal Kontserbatorioa	Hezkuntza	Orokorra
Arrantzalearen Museoa	Kultura	Orokorra
Andra Mari eliza*	Erlijiokoa	Orokorra
Eufemi Deunaren eliza	Erlijiokoa	Orokorra
Itsasoko Gizarte Institutua	Osasuna	Orokorra
Udaletxea	Administrazio Zerbitzu Orokorrak	Orokorra
Sociedad Bermeana	Aisialdia	Orokorra
Ospitale Psikiatrikoa	Osasuna	Orokorra
Intxausti 2-ko udal bulegoak	Administrazio Zerbitzu Orokorrak	Orokorra
Andra Mari 22-ko eraikina (Beruala)	Administrazio Zerbitzu Orokorrak	Orokorra

**Herri-ekipamenduko Tokiko Sistema:**

Erremedio Kalea 5	Servicios Públicos de la Admon.	Tokikoa
Udal Liburutegia	Kultura	Tokikoa
Pilotalekua	Kirola	Tokikoa
Arreta-Zerbitzuak "Kofradia"	Arreta-Zerbitzuak	Tokikoa
Kabidxe (bakarrik beheko solairua)	Arreta	Tokikoa
Hurtado de Mendoza s/n	Gizarte-kultura	Tokikoa

(\*)Santa Maria elizaren kasuan, bere balizko erabilerak garatzen dituen Plan Gidari bat idatziko da.

## 4. GIZARTEARI BURUZKO INFORMAZIOA.

### 1.- Aurkezpena.

Analisi demografikoa da Alde Zaharrean edozein jarduketari ekiteko funtsezko oinarrietako bat, lan honek ez baitauka bakarrik ondarearen antolaketa ikuspegi bat, baizik eta baita ere ezaugarri oso sendoak dituen biztanleri eta etxebizitza ikuspegi zabal bat ere (esan behar da Alde Zaharra aldi berean Monumentu Multzo eta Birgaitze Integratuko Eremu bezala aitortuta dagoela). Analisi honetan gunearen ikuspegi nagusienak laburbildu nahi dira, biztanleriaren egoera eta bizi-kalitatearen ikuspegitik, bere atalik nabarmenen zehar egindako ibilbide baten bitartez.

Horregatik, atal guztiak datu, grafiko eta estatistika-taula ugariz lagunduta datoz, era horretan ikusi ahal izateko azken urteotan izandako bilakaera. Nola oso garrantzitsua den analisisian ikuspegi historiko bat hartzea ikusteko nondik gatozen jakiteko non gauden, ikus dezakegu demografi, ekonomi eta gizarte adierazle gehienetan 2008 urtea geroztik jasaten ari garen krisi ekonomikoa.

Eremuaren azterketarako lehen hurbiltze erreferentzia bezala BERUALA sozietate publikoak 2017 urtean egindako azterketa bat zegoen. Azterketa hau dokumentu honi gehitu zaion azterketa xehatuago batez osatu da.

### 2.- Kokapen geografikoa eta lurraldea.

Bermeo Busturialdea eskualdean kokatuta dago, Bizkaia Herrialde Historikoaren ekialdean. EUSTAT datuen arabera 34,10 Km<sup>2</sup>-ko zabalera dauka, 19 imgm-ko garaiera eta 16.681 biztanle. Bera Alde Zaharrak 11,5 Ha. azalera du (0,115 Km<sup>2</sup>) eta 3.316 biztanle (herri osoaren %19,88).

Udalerrriaren zati handi bat Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren barruan dago. Kostaldea (Matxitxako, Izaro, Gaztelugatxe) eta barneko erliebe menditsua (Sollube eta Burgoa) dira bere ingurune fisikoaren ezaugarri.


Udalerrriak itsasoarekin mugatzen du iparraldetik, Busturi, Arrieta, Meñaka eta Mungiarekin hegoaldetik, Bakiorekin mendebaldetik, eta Mundakarekin ekialdetik, baina zalantzarik gabe, azken honekin da harreman gehiago daukanarekin.

### 3.- Alde Zaharreko biztanleriaren aldez aurreko azterketa.

Alde Zaharreko biztanle kopurua (aldez-aurreko azterketako datuak) 3.316-koa zen. Bere azterketa xehatu bat egiten da gaur egungo Plan Bereziak banatzen dituen bost sektoretan (hemen "analisi-unitateak" deituak).

	BIZTANLEAK	
	e.e.	%
1 Analisi-unitatea	547	16,49
2 Analisi-unitatea	808	24,37
3 Analisi-unitatea	706	21,29
4 Analisi-unitatea	579	17,46
5 Analisi-unitatea	676	20,39
GUZTIRA	3.316	100






### 3.1.- Biztanleriaren jatorria.

	1 UNITATEA		2 UNITATEA		3 UNITATEA		4 UNITATEA		5 UNITATEA		GUZTIRA	
	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%
<b>Espainia</b>	514	93,97	722	89,36	640	90,65	513	88,60	643	95,12	3.032	91,44
<b>Europa</b>	12	2,19	35	4,33	20	2,83	20	3,45	12	1,78	99	2,99
<b>Beste batzuk</b>	21	3,84	51	6,31	46	6,51	46	7,94	21	3,11	185	5,58
<b>GUZTIRA</b>	547	100	808	100	706	100	579	100	676	100	3.316	100


### 3.2.- Biztanleriaren egitura adin eta sexuaren arabaera.

ADINA	GIZONEZKOAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%
0-tik 4-ra	57	3,50	55	3,26	112	3,38
5-tik 9-ra	78	4,79	76	4,50	154	4,64
10-tik 14-ra	80	4,91	65	3,85	145	4,37
15-tik 19-ra	58	3,56	55	3,26	113	3,41
20-tik 24-ra	66	4,05	60	3,55	126	3,80
25-tik 29-ra	78	4,79	70	4,15	148	4,46
30-tik 34-ra	102	6,27	106	6,28	208	6,27
35-tik 39-ra	132	8,11	132	7,82	264	7,96
40-tik 44-ra	169	10,38	149	8,83	318	9,59
45-tik 49-ra	142	8,72	118	6,99	260	7,84
50-tik 54-ra	147	9,03	147	8,71	294	8,87
55-tik 59-ra	121	7,43	133	7,88	254	7,66
60-tik 64-ra	95	5,84	95	5,63	190	5,73
65-tik 69-ra	86	5,28	75	4,44	161	4,85
70-tik 74-ra	80	4,91	105	6,22	185	5,58
75-tik gora	137	8,42	274	14,63	384	11,58
<b>GUZTIRA</b>	<b>1628</b>	<b>100</b>	<b>1688</b>	<b>100</b>	<b>3.316</b>	<b>100</b>




1 Análisi-unitatea:

ADINA	GIZONEZKOAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%
	9				21	
0-tik 4-ra	16	3,21	12	4,49	25	3,84
5-tik 9-ra	13	5,71	9	3,37	23	4,57
10-tik 14-ra	10	4,64	10	3,74	20	4,20
15-tik 19-ra	12	3,57	10	3,74	21	3,66
20-tik 24-ra	11	4,28	9	3,37	20	3,84
25-tik 29-ra	20	3,93	9	3,37	20	3,66
30-tik 34-ra	17	7,14	21	7,87	41	7,50
35-tik 39-ra	31	6,07	18	6,74	35	6,40
40-tik 44-ra	27	11,07	22	8,24	53	9,69
45-tik 49-ra	26	9,64	17	6,37	44	8,04
50-tik 54-ra	19	9,29	26	9,74	52	9,51
55-tik 59-ra	16	6,79	19	7,12	38	6,95
60-tik 64-ra	13	5,71	13	4,87	29	5,30
65-tik 69-ra	13	4,64	15	5,62	28	5,12
70-tik 74-ra	27	4,64	19	7,12	32	5,85
75-tik gora		9,64	38	14,23	65	11,89
<b>GUZTIRA</b>	<b>280</b>	<b>100</b>	<b>267</b>	<b>100</b>	<b>547</b>	<b>100</b>




2 Analisi-unitatea:

ADINA	GIZONEZKOAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%
0-tik 4-ra	15	3,79	15	3,64	30	3,71
5-tik 9-ra	19	4,79	22	5,34	41	5,07
10-tik 14-ra	21	5,30	18	4,37	39	4,83
15-tik 19-ra	14	3,54	17	4,13	31	3,84
20-tik 24-ra	14	3,54	9	2,18	23	2,85
25-tik 29-ra	14	3,54	9	5,34	23	2,85
30-tik 34-ra	30	7,58	17	4,13	47	5,82
35-tik 39-ra	40	10,10	17	11,65	57	7,13
40-tik 44-ra	42	10,60	48	7,77	90	11,18
45-tik 49-ra	34	8,59	32	5,83	66	8,25
50-tik 54-ra	39	9,85	24	6,80	63	7,80
55-tik 59-ra	24	6,06	39	9,47	63	7,80
60-tik 64-ra	27	6,82	22	5,34	49	6,04
65-tik 69-ra	18	4,55	12	2,91	30	3,71
70-tik 74-ra	13	3,28	23	5,58	36	4,46
75-tik gora	32	8,08	64	15,53	96	11,88
<b>GUZTIRA</b>	<b>396</b>	<b>100</b>	<b>412</b>	<b>100</b>	<b>808</b>	<b>100</b>




3 Análisi-unitatea:

ADINA	GIZONEZKOAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%
0-tik 4-ra	14	4,15	7	1,90	21	2,97
5-tik 9-ra	10	2,97	19	5,15	29	4,11
10-tik 14-ra	14	4,15	12	3,25	26	6,68
15-tik 19-ra	15	4,45	14	3,79	29	4,11
20-tik 24-ra	15	4,45	12	3,25	27	3,82
25-tik 29-ra	16	4,75	13	3,52	29	4,11
30-tik 34-ra	23	6,82	27	7,32	50	7,08
35-tik 39-ra	31	9,20	25	6,78	56	7,93
40-tik 44-ra	32	9,50	43	11,65	75	10,62
45-tik 49-ra	34	10,09	27	7,32	61	8,64
50-tik 54-ra	31	9,20	36	9,76	67	9,49
55-tik 59-ra	22	6,53	25	6,78	47	6,66
60-tik 64-ra	18	5,34	27	7,32	45	6,67
65-tik 69-ra	19	5,64	14	3,79	33	4,67
70-tik 74-ra	17	5,04	20	5,42	37	5,24
75-tik gora	26	7,72	48	13,01	74	10,48
<b>GUZTIRA</b>	<b>337</b>	<b>100</b>	<b>369</b>	<b>100</b>	<b>706</b>	<b>100</b>




4 Analisi-unitatea:

ADINA	GIZONEZKOAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%
0-tik 4-ra	10	3,52	10	3,39	20	3,45
5-tik 9-ra	17	5,99	15	5,08	32	5,53
10-tik 14-ra	13	4,58	15	5,08	28	4,83
15-tik 19-ra	11	3,87	9	3,05	20	3,45
20-tik 24-ra	10	3,52	16	5,42	26	4,49
25-tik 29-ra	11	3,87	9	3,05	20	3,45
30-tik 34-ra	16	5,63	19	6,44	35	6,05
35-tik 39-ra	19	6,69	25	8,47	44	7,60
40-tik 44-ra	29	10,21	20	6,78	49	8,46
45-tik 49-ra	26	9,15	18	6,10	44	7,60
50-tik 54-ra	26	9,15	26	8,81	52	8,98
55-tik 59-ra	25	8,80	30	10,17	55	9,50
60-tik 64-ra	19	6,69	8	2,72	27	4,66
65-tik 69-ra	13	4,58	17	5,76	30	5,18
70-tik 74-ra	13	4,58	16	5,42	29	5,01
75-tik gora	26	9,15	42	14,24	68	11,74
<b>GUZTIRA</b>	<b>284</b>	<b>100</b>	<b>295</b>	<b>100</b>	<b>579</b>	<b>100</b>



5 Analisi-unitatea:

ADINA	GIZONEZKOAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%
0-tik 4-ra	9	2,72	11	3,19	20	2,96
5-tik 9-ra	16	4,83	11	3,19	27	3,99
10-tik 14-ra	19	5,74	10	2,90	29	4,59
15-tik 19-ra	8	2,42	5	1,45	13	1,92
20-tik 24-ra	15	4,53	14	4,06	29	4,29
25-tik 29-ra	26	7,86	17	4,93	43	6,36
30-tik 34-ra	13	3,93	22	6,38	35	5,18
35-tik 39-ra	25	7,55	16	4,64	41	6,07
40-tik 44-ra	35	10,57	32	9,28	67	9,91
45-tik 49-ra	21	6,34	32	9,28	53	7,84
50-tik 54-ra	25	7,55	31	8,99	56	8,28
55-tik 59-ra	31	9,37	20	5,80	51	7,54
60-tik 64-ra	15	4,53	25	7,25	40	5,92
65-tik 69-ra	23	6,95	17	4,93	40	5,92
70-tik 74-ra	24	7,25	27	7,83	51	7,54
75-tik gora	26	7,85	55	15,95	81	11,98
<b>GUZTIRA</b>	<b>331</b>	<b>100</b>	<b>345</b>	<b>100</b>	<b>676</b>	<b>100</b>



### 3.3.- Ikasketa maila.

	1 UNITATEA		2 UNITATEA		3 UNITATEA		4 UNITATEA		5 UNITATEA		GUZTIRA	
	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%	e.e.	%
EZ DAKI EZ IRAKURTEN EZ IDAZTEN	129	23,58	190	23,51	150	21,25	118	20,38	117	17,31	704	21,23
ESKOLA GRADUA BAINO BEHERAGOKO TITULAZIOA	166	30,35	225	27,85	163	23,09	108	18,65	222	32,84	884	26,66
BATXILERRA, BIGARREN MAILAKO LANBIDE EZIKETA, ANTZEKOA EDO GEHIAGO	221	40,40	335	41,46	334	47,31	301	51,99	272	40,24	1.463	44,11
EZIN ZAIO APLIKATU 10 URTE BAINO GUTXIAGO DUELAKO	8	1,46	10	1,24	8	1,13	13	2,25	4	0,59	43	1,30
UNIBERTSITATE LIZENTZIATUA, ARKITEKTO EDO GOI-MAILAKO INGENIARIA	3	0,55	5	0,62	4	0,57	5	0,86	6	0,89	23	0,69
ESKOLA GRADUATUA EDO BALIOKIDEA	8	1,46	20	2,48	21	2,97	17	2,94	33	4,88	99	2,99
LEHEN MAILAKO LANBIDE HEZIKETA, INDUSTRI-OFIZIALA	3	0,55	5	0,62	1	0,14	2	0,35	5	0,74	16	0,48
OINARRIZKO BATXILLERRA, ESKOLA GRADUATUA, OEO/LEHEN HEZKUNTZA OSOA, ESKOLA ZIURTAGIRIA EDO ANTZEKOA	3	0,55	3	0,37	6	0,85	7	1,21	4	0,59	23	0,69
LEHEN HEZKUNTZA BETE GABE, 5 IKASTARO OEO EDO BALIOKIDEA					4				4	0,59		
ARKITEKTO EDO INGENIARI TEKNIKOA	1	0,18	6	0,74	0	0,57	1	0,17	4	0,15	16	0,48
DOKTORATUA ETA GRADUONDOKO IKASKETAK EDO LIZENTZIATUENTZAKO ESPEZIALITATE	1	0,18	0	0	0	0	0	0	1	0	2	0,06
IKASTAROAK	1	0,18	2	0,24	2	0,28	1	0,17	0	0	6	0,18
GOI-MAILAKO BATXILLERRA, UBI	1	0,18	2	0,24	7	0,99	1	0,17	4	0,59	15	0,45
UNIBERTSITATE ESKOLAKO DIPLOMADUNA (ENPRESA, UBIko MAISU, OLT edo ANTZEKOA)	0,18	0	0	0	2	0,28	2	0,35	2	0,30	7	0,21
BIGARREN MAILAKO LANBIDE HEZIKETA, INDUSTRI-MAISUA	1	0,18	5	0,62	2	0,28	2	0,35	1	0,15	11	0,33
IKASKETA GABEKOAK	0	0	0	0	2	0,28	1	0,17	1	0,15	4	0,12
<b>GUZTIRA</b>	<b>547</b>	<b>100</b>	<b>808</b>	<b>100</b>	<b>706</b>	<b>100</b>	<b>579</b>	<b>100</b>	<b>676</b>	<b>100</b>	<b>3.316</b>	<b>100</b>



### 3.4.- Gaztetasun eta zahartze indizeak.

	1 UNITATEA	2 UNITATEA	3 UNITATEA	4 UNITATEA	5 UNITATEA	GUZTIRA
Gaztetasun indizea	20,11	20,30	18,70	21,76	17,45	19,60
Zahartze indizea	22,85	20,05	20,40	21,93	25,44	22,01

### 3.5.- Konparaketa 2001-2017.

Biztanleria guztira: 2001 urtearekin konparatuta, gaur egun 1.090 biztanle gutxiago daude Alde Zaharrean.

	BIZTANLE KOPURUA		ALDAKETA
	2001	2017	
1 ANALISI-UNITATEA	736	547	-189
2 ANALISI-UNITATEA	1.075	808	-267
3 ANALISI-UNITATEA	857	706	-151
4 ANALISI-UNITATEA	767	579	-188
5 ANALISI-UNITATEA	971	676	-295
GUZTIRA	4.406	3.316	-1.090

#### 4.- Etxebizitza-ehunaren bilakaera.

Berrikusten den Plan Bereziak 2001 urtetik aurreko datuak jasotzen ditu bere azterketa sozio-urbanistikoan. Etxebizitza eraikinei dagokionez, 2065 bizitza zenbatzen ditu 425 eraikinetan, eta ondoko hau ondorioztatzen du:

- Eraikinen %71, non etxebizitzen %79 sartzen da, mantentze egoera egokian daudela eman daiteke.
- Eraikinen %17, non etxebizitzen %14 sartzen da, erdipurdiko mantentze egoeran daudela eman daiteke.
- Eraikinen %2, non etxebizitzen %1 sartzen da, mantentze egoera txarrean daudela eman daiteke.

Interpretatzen zen eraikin bakoitzeko etxebizitzen proportzioa handiagoa zela egoera onean zeuden eraikinetan, berriagoak baitziren eta beraietan okupazioa handiagoa zelako r.

Eraikinen adinari dagokionez, ondoko datuak jasotzen zituen:

- 1900 urte aurrekoak: 730 etxebizitza (%35) 198 eraikinetan (%47).
- 1900-tik 1940-ra: 535 etxebizitza (%26) 120 eraikinetan (%28).
- 1940-tik 1960-ra: 435 etxebizitza (%22) 57 eraikinetan (%13).
- 1960-tik 1990-ra: 347 etxebizitza (%17) 50 eraikinetan (%12).

Hau honela interpretatzen zen: nahiz eta eraikin asko egon jatorriz XIX. mendea baino aurrekoak zirenak, orokorrean, eremuaren behin betiko irudia XX. mendean finkatu zen eraberritze, altxatze eta horrelakoen bidez, eta sustapenak gaur egungo sasoiara hurbiltzen ziren neurrian, etxebizitza kopurua eraikineko handitu egiten zela.

Gaur egungo Plan Bereziaren indarraldian (eta baita ere 1992 urtean) birgaitze obra pribatuko bolumen handia izan da, gehien bat Berualak kudeatua, birgaitzerako laguntza edo inbertsioekin, eta horrek erabat hobetu du eraikuntzaren egoera, eta baita etxebizitzen confort eta ekipamendu-maila. Hala ere, etxebizitza hutsen indizea altua izaten jarraitzen du. 2001 urtean %31koa zen, herriaren gainerakoan %20 zelarik ordea. Alde Zaharreko biztanleen kopurua 4.406-koa zen 2001 urtean (nahiz eta Plan Bereziak 3.400 auzokideko errolda aipatzen duen). Aurreko ataletan esan den bezala, kopuru hau dezente jaitsi da, gaur egungo 3.316 biztanlera arte heldu arte, agian, alde zaharreko jatorrizko biztanle asko hil egin direlako eta ez horrenbeste beste gune batzuetara joan direlako. Hala ere, uste da etxebizitza hutsen benetako indizea altua izaten jarraitzen duela.

Orokorrean, etxebizitzari buruzko informazioari dagokionez esan daiteke aurreko Plan Bereziako datu asko oraindik baliagarriak izaten jarraitzen dutela, baina bere informazioa eguneratu egin da 2018an egindako azterlan sozio-urbanistikoan. Aurrerago jasotzen dira bere datuak.

#### 5.- Ekoizpen jarduera eta egitura ekonomikoaren bilakaera.

Indarrean dagoen Plan Bereziak 2001 urtetik aurreko datuak jasotzen ditu bere azterketa sozio-urbanistikoan.

Une hartan, merkataritza txikia zen nagusi jarduera ezberdinen artean, establezimenduen %46,8 suposatuz. Ostalaritza zetorren bigarren tokian, osoaren %12,9-rekin. Jarduera ekonomikoaren osagarri ziren establezimenduek (gehien bat, ontzien tresnak gordetzeko lokalak), ordea, %9,8 suposatzen zuten.


Industria-lantegien sektoreari dagokionez, establezimenduen %6,2 suposatzen zuten. Horrek erakusten zuten ze nolabaiteko pisu txikia zeukaten jarduera hauek gunearen barruan.

Establezimenduak, orokorrean, nahiko barriak ziren edo orduan zela gutxi berriztatutakoak ziren. %40 1980 urte ostekoak ziren (%63 1970 urte ostekoak). Berritze handiena merkataritza txikian eta, batez ere, banku eta bulegoetan ematen zen.

2001 urtean adierazle gehienek negozio-bolumenean nolabaiteko egonkortasun bat adierazten zuten eta bertan kokatutako negozioen jabe gehienek konforme zeuden bere kokapenarekin eta ez zuten tokiz aldatzeko interesik erakusten.

Sortzen zuten enpleguari dagokionez, ez zen oso altua establezimendu kopuruarekin konparatuz (1,46 pertsona establezimenduko). Gehienak merkataritza txikian eta ostalaritzan kontzentratzen ziren (%51,7 eta %20,8, hurrenez hurren). Beste ekarpen esanguratsu bat zen alde zaharrean herri-ekipameduak kokatzeak (udaletxea, anbulategia, etab.) eragindakoa, jarduera ekonomikoek sortutako laurden baten inguruan baitzebilten. 2001 urtean ez zen aurreikusten aldaketa handirik etorkizun hurbilean enpleguari zegokionez.

2017 urtean egoera aldatu egin da nolabait. Merkataritza txikia eta ostalaritza dira arlo nagusiak eta administrazio-jarduera alde zaharrean mantentzen da oraindik. Jarduera ezberdinek mosaiko aberats bat eratzen dute, Udalak 2017an egindako planoan ikus daitekeenez (ikusirudia). Hala ere, lehen bien egoera eta ezaugarriak, bere garaian nolabait egonkor bezala ikusten zirenak, aldatu egin dira.



Jardueren plana 2017  
Iturria: Bermeoko Udala


## 5.- 2018ko ekaineko azterketa sozio-demografikoa.

### 5.1. Biztanleriaren ezaugarri demografikoak.

#### 5.1.1. Biztanleak eta sexua.

XX. mendearen hasieratik, Bermeoko biztanleriaren ezaugarria etengabeko hazkunde bat izan da 70. hamarkada arte, noiz hazkundera moteltzen hasten den, gero eten eta gero jaisten hasi 90. hamarkadan. Aurrerantzean, jada XXI. mendean, jaitsiera motelagoa izango da, nahiz eta biztanleriak jaisteko joera hori mantendu.

**BERMEOKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1900 URTETIK**



*Iturria: Delgado, A (1998): Bermeo en el siglo XX: política y conflicto en un municipio pesquero vizcaino (1912-1955) eta biztanleen Udal Estatistika. EUSTAT.*

Eustatek Bermeo udalerrian 2017 urtean jasotako azken biztanleri datuek erakusten dute alde zaharreko biztanleria 3.265 auzokidekoa dela, Bermeo osoan dauden 16.766 biztanletatik. Azpimarratu behar da guneak azken bost urteotan etengabeko biztanleri jaitsiera bat izan duela, 3.612 biztanletik 2012 urtean 3.265 biztanlera pasatuz 2017 urtean, 1. Grafikoan adierazten den bezala. Ikus daiteke azken urtean gutxiago jaitsi dela biztanle kopurua.

Datuak generoaren arabera aztertuz, emakumeen kopurua gizonen baino handiagoa izan da 2012 gerotik. Honen arrazoia da, aurrerago ikusiko den bezala, beraien bizitza itxaropen handiagoa da.

**BERMEOKO ALDE ZAHARREKO BIZTANLERIA. 2012-2017**


URTEA	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
2012	3.612	1.761	1.851
2013	3.528	1.707	1.821
2014	3.453	1.665	1.788
2015	3.381	1.653	1.728
2016	3.280	1.623	1.657
2017	3.265	1.599	1.666

*Iturria: biztanleen udal estatistika. EUSTAT. 2017*

### 5.1.2. Egitura adin eta sexuaren arabera. Biztanleriaren piramidea.

Biztanleria adinez adin aztertzen bada 0 eta 14 arteko pertsonen nagusitasuna (%12,80) nabarmentzen da, eta baita 75 urtetik gorakoena (%11,27), batez ere emakumeak, bere kopurua ea bikoitza izanik adin bereko gizonezkoekiko. Era berean, 35 eta 59 urte arteko pertsonak biztanleriaren ea %50 suposatzen dute (%48,36, hain zuzen), baina kasu honetan gizonezkoak dira nagusi emakumeekiko. Honek erakusten digu zahartzera jotzen duen biztanleri bat dela, nahiz eta pertsona gazteen datuak aldaketa bat suposatu dezakeen epe luzeagora. Baita ere, piramidearen itxurak erakusten du biztanleri harpidedun den gizarte bat dela.

#### BERMEOKO ALDE ZAHARREKO BIZTANLERIAREN PIRAMIDEA



Iturria: Norberak egina biztanleen udal estatistikan oinarrituz. EUSTAT. 2017

## 5.2. Biztanleriaren ezaugarri soziologikoak.

### 5.2.1. Elkarbizitza.

2016 urtean okupatutako familiako etxebizitza kopuru osoa 1.579-koa zen. Hauetatik %39,52 pertsona bakar batez okupatuta zeuden. Beraietatik %28,56-tan bizilagunen kopurua 2 da eta etxebizitzaren %31,01-tan 3tik 5 pertsonara bizi dira. Etxebizitzaren %1 baino gutxiagok hartzen dute 6 pertsona baino gehiago.

#### BIZTANLE KOPURUA ETXEBIZITZAKO


Guztira	1.579
1 pertsona	624
2 pertsona	451
3-5 pertsona	490
6-9 pertsona	14
>= 10 pertsona	0

Iturria: Etxebizitza Udal Estatistika. EUSTAT. 2016

### **5.3. Auzoan antzemandako beharrak.**

Informazioa eman duten pertsonen ea erdiak diote ez dutela leihoak itxi beharrik zarata, ke edo usain txarrak direla eta. Gainerako bizilagunek kontrako iritsia dute ordea.


P.4 Gelaren bateko leihoak itxi behar dituzu kanpoko eragozpenak direla eta, esateko, zaratak, keak edo usain txarrak?



*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*

Ordea, nahiz eta industriguneak badauden hurbil, Bermeoko alde zaharreko biztanleek ez dute uste kutsadurarik dagoenik eremuan.


P.5 Ba al dago auzoan edo hurbil industria kutsagarriak aire edo ibaiantzat?



*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*

Bermeoko alde zaharreko pertsonen sarrien egiten duten eskaera garbiketa eta esparru publikoen mantentzea hobetzea da, eta horren atzetik auzoko irisgarritasuna hobetzea, aldapa, eskailera eta maldak kenduz. Garraio publikoa eta bizikletentzako aparkalekuak lehentasun ez hain handiko ikuspegiak dira.

**P.6 Adierazi zure iritsiz zure AUZORAKO lehentasun handiena duten hiru ekintzak.**




*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*

**5.4. Biztanleriaren pertzepzioa bere etxebizitza kokatzen den eraikinari buruz.**

Pertsonen eskatzen zaienean bere eraikinen beharrak identifikatzeko, suteen aurkako segurtasuna da eskatuena, agian eraikin zaharrak dituen gune bat delako. Bigarrenik, eta eskaera maila antzekoarekin, guneko pertsonen lehentasuna ematen diote eraikina mugikortasun murriztuko pertsonen egokitzeari, eta era berean amankomuneko esparruak eraberritzea, esateko, eskaratzak, eskaileak-buruak edo eskaileak.


**P.7 Adierazi zure iritsiz zure ERAIKINERAKO lehentasun handiena duten hiru ekintzak.**



*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*


Hamar erkidegotik lauen obraren bat dago egin gabe. Horrela, obrak epe motzean egiteke daude, nahiz eta kasuen %20-ean obra hauek ez dira egingo edo etenda daude arrazoi ekonomikoak direla eta.

**P.8 Egiteko obrak daude zure erkidegoan?**



*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*

**P.9 Zergatik dela eta daude egin gabe?**



*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*

**5.5. Biztanleriaren pertzepzioa bere etxebizitza propioari buruz.**


Bloke honetan aztertzen da etxebizitza edukitzeko era, eta baita etxebizitza aldatzeko edo gaur egungoa hobetzeko beharrak, edo bere ezaugarriak.

**5.5.1. Etxebizitza edukitzeko era.**

Bermeoko etxebizitza parkean nagusi dira jabetzan eta erabat ordainduta daudenak. Azpimarratu behar da hamar etxebizitzatik bi alokairuan daudela eta guztietatik %31 oraindik ez daudela guztiz ordainduta.



**P.10 Adierazi etxebizitza edukitzeko era**



*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*

**5.5.2. Etxebizitzaren ezaugarriak.**

Bermeoko alde zaharreko etxebizitzak sukalde independentea, egongela, logelak, bainu-gela eta trastelekua dute. Etxebizitzen %12k logelaren batek beste logela batetik du sarbidea, eta etxebizitzen %20 logelak dituzte kanpora ematen duen leihozik ez duenik.

- P.11. Mesedez, zure etxebizitzak ondorengo gelak baditu eta esan kopuru zehatza logela, bainu-gela eta trastelekuen kasuan
- P.13. Esan ahal didazu zenbat metro erabilgarri dituen etxebizitzak?
- P.14. Sukaldea, independentea da gainerako gelekiko?
- P.15. Gelaren baten sarbidea beste gela batetik da?
- P.16. Gelaren batek ez du leihozik kanpora?

	Bermeo	Batez bestea
<b>Sukaldea</b>	%100,0	
<b>Egongela</b>	%100,0	
<b>Logelak</b>	%100,0	2,6
<b>Bainugelak eta/edo komunak</b>	%100,0	1,3
<b>Kamaroteak eta/edo ganbarak</b>	%56,7	1,0
<b>Metro karratu erabilgarri</b>	80,24 m <sup>2</sup>	
<b>Sukaldea independentea da gainerako geletatik</b>	%72,5	
<b>Sar al daiteke gelaren batean beste gela batetik</b>	%12,4	
<b>Badago kanporako leihozik ez duen logelarik</b>	%20,2	

*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*

Etxebizitzek 80 metro koadroko batez besteko tamaina dute. Etxebizitzen %70 61 eta 120 metro koadro artean dute. Ordea, soilik %6k dauka 120 metro koadro baino azalera handiagoa.


Bermeo	
31 eta 60 m <sup>2</sup> arteko etxebizitzak	%22,47
61 eta 90 m <sup>2</sup> arteko etxebizitzak	%51,69
91 eta 120 m <sup>2</sup> arteko etxebizitzak	%17,42
121 eta 150 m <sup>2</sup> arteko etxebizitzak	%6,18
150 m <sup>2</sup> baino gehiagoko etxebizitzak	%1,69
ED/EE	%0,56

*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*

### 5.5.3. Arazoak eta beharrak etxebizitza eraberritzeko orduan.

Etxebizitzen laurden batek ez du inolako arazorik inkestatu diren pertsonen arabera. Kanpotik datozen zaratak dira Bermeoko alde zaharrean bizi diren pertsonen jasotzen duten eragozpen nagusia. Neurri txikiago batean datoz hezetasunak eta toki falta.


#### P.17 Etxebizitzak ondorengo arazoren bat ba al dauka?



*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*

Eremuko etxebizitzen %40 ez da eraberritu edo birgaitu azken 10 urteotan.


**P.18 Eraberritze edo birgaitze obrarik egin al duzu zure etxebizitzan azken 10 urteotan?**



*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*

Eraberritu diren etxebizitzaren artean, sukaldea eta bainu-gela dira gehien birgaitzen diren gelak, margoketaren berrikuntzarekin batera. Aldaketak berokuntzan etxebizitzaren %20ean gauzatu dira bakarrik.

**P.19 Zein motatakoak?**



*Iturria: Bermeoko alde zaharreko datuak, Hiritek-ek 2018 urtean egindako ad hoc inkesta*

## 6.- 2018ko ekaineko azterketa sozio-ekonomikoa.

### 6.1. Adierazle sozio-ekonomikoak.

Bermeoko alde zaharreko biztanleri osoa 2016 urtean 3.280-koa zen. Bertatik, 1.216 pertsona ziren biztanleri okupatua, eta 382 langabetu zeuden. Aztertutako biztanleria piramidetik ondorioztatzen da biztanleri inaktiboaren kopuru handia, 1.682 pertsona, hau da, biztanleriaren %51,28. Sexuaren arabera, bai biztanleria okupatuaren kasuan, bai langabetuaren kasuan, gehiago dira gizonezkoak emakumeak baino. Datu hau, ordea, aldatu egiten da biztanleri inaktiboaren kasuan. Bertan emakumeak dira nagusi, batez ere 75 urtetik gorakoan artean.

Bermeo udalerriarekin eta, orokorrean, herrialdearekin konparatuz, azpimarratu behar da langabetuen kopuru handiagoa: %11,65, Bermeoko %8-rekin edo Bizkaiarekin konparatuta. Ordea, biztanleri inaktiboa %3 gutxiago da distritoan (kasu honetan Bizkaiarekin konparatu daiteke). Azkenik, biztanleriari dagokionez, antzekoa da udalerrri osoan eta zerbait gutxiago herrialde mailan.

#### BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA

	ALDE ZAHARRA			BERMEO	BIZKAIA
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Guztira
<b>Guztira</b>	<b>3.280</b>	<b>1.623</b>	<b>1.657</b>	<b>16.709</b>	<b>1.138.852</b>
<b>Biztanleri okupatua</b>	<b>1.216</b>	<b>618</b>	<b>598</b>	<b>6.248</b>	<b>460.661</b>
<b>Biztanleri langabetua</b>	<b>382</b>	<b>209</b>	<b>173</b>	<b>1.401</b>	<b>93.592</b>
<b>Biztanleri inaktiboa</b>	<b>1.682</b>	<b>796</b>	<b>886</b>	<b>9.060</b>	<b>584.599</b>

Iturria: Biztanleria aktiboaren udal estatistika. EUSTAT. 2016.

Errentari dagokionez, bai pertsonala bai familiarra, nabarmendu behar da Bermeon herrialdeko eta erkidegoko multzokoa baino txikiagoa dela. Datu hau 2011 urtetik 2015ean azkenengo jasotakoa arte mantendu da. Bere bilakaerari dagokionez, adierazi behar da 2014 urtean izan zuen beherakada, hurrengo urtean errekueratu zena. Orokorrean, diferentzia nabarmenena sexuen artean dago, 8.000 eta 9.000 euro artean izanez jasotako urte guztietan.

#### ERRENTA PERTSONAL ETA FAMILIARRA BERMEO, BIZKAIA ETA EAEn. 2011-2015

BERMEO	2015	2014	2013	2011
<b>Batez besteko errenta pertsonala (€). Guztira</b>	17975	17444	17852	16891
<b>Batez besteko errenta pertsonala (€). Gizonak</b>	22153	21566	22284	21086
<b>Batez besteko errenta pertsonala (€). Emakumeak</b>	13978	13492	13621	12917
<b>Batez besteko errenta pertsonala (€).</b>	36399	35767	36837	36224
BIZKAIA	2015	2014	2013	2011
<b>Batez besteko errenta pertsonala (€). Guztira</b>	19589	19082	19053	19187
<b>Batez besteko errenta pertsonala (€).</b>	40887	40136	40368	41476
EAE	2015	2014	2013	2011
<b>Batez besteko errenta pertsonala (€). Guztira</b>	19968	19379	19319	19715
<b>Batez besteko errenta pertsonala (€).</b>	41058	40097	40247	42192

Iturria: Norberak egina biztanleen udal estatistikan oinarrituz. EUSTAT. 2017

## 7.- Elkarteak.

Bermeoko alde zaharrak elkarte askoren egoitzak hartzen ditu. Hauek dira:

Artza Bermeo pilota elkarte	Frontón Artza	Kirola
Izaro-Sub urpekaritza taldea	Muelle Martillo, z/g	Kirola
Akatxe Txokoa	Erremedio, 14-1	Kultura/Gastronomia
Argia Txokoa	Eupeme Deuna enp., 12-2	Kultura/Gastronomia
Arrantzale Txokoa	Ibarluzea tar Kosme	Kultura/Gastronomia
Beti Alai Txokoa	Nardiz tar Jon, 24-1	Kultura/Gastronomia
Danok Bardin Txokoa	Intxausti, 14	Kultura/Gastronomia
Danok Bat Txokoa	Nardiz tar Jon, 26-1	Kultura/Gastronomia
Gaztelu Toki Txokoa	Eupeme Deuna enp., 11	Kultura/Gastronomia
Gizonak Bakarrik Txokoa	Landatxuko Eskilarak, 1	Kultura/Gastronomia
Hiru Iturriak Txokoa	Hutsa Eskailerak, 10	Kultura/Gastronomia
Ikus Eder Txokoa	Landatxuko Eskilarak, 1	Kultura/Gastronomia
Ikuste Alai Txokoa	Landatxuko Eskilarak, 2	Kultura/Gastronomia
Itxas Arte Txokoa	Eupeme Deuna enp., 7	Kultura/Gastronomia
Itxas Ondo Txokoa	Istua, 4	Kultura/Gastronomia
Izaro Begi Txokoa	Torrontero Eskilarak, z/g	Kultura/Gastronomia
Kai Txiki Txokoa	Nardiz tar Benantzio, 16-1	Kultura/Gastronomia
Kale Kale Txokoa	Andra Mari, 4	Kultura/Gastronomia
Kilin Kolan Txokoa	Intxausti, 31-2	Kultura/Gastronomia
Kresal Gane Txokoa	Eupeme Deuna enp., 9	Kultura/Gastronomia
Lagun Etxe Txokoa	Aurrekoetxea, 14	Kultura/Gastronomia
Lagun Toki Txokoa	Intxausti, 31-1	Kultura/Gastronomia
Lamera Gane Txokoa	Hutsa Eskailerak, 9	Kultura/Gastronomia
Torrontero Gane Txokoa	Ertzilla, 22	Kultura/Gastronomia
Ugerri Txokoa	Nardiz tar Jon, 44-1	Kultura/Gastronomia
Asociación Coro Rociero Maika	Irakaskintza, 14-16	Kultura
Saregiñek, Bermeoko Emakume Feministen Elkarte	Irakaskintza, 14-16	Kultura
Portuko Sorgiñe kultur taldea	Aurrekoetxea, 22-1	Kultura
Kankinkabara txistu taldea	Aurrekoetxea, 45-2	Kultura
Jakin Badakigu informatika elkarte	Intxausti, 3-1	Kultura
Bermioko Irrintzilari elkarte	Irakaskintza, 14-16	Kultura
Bermeoko Erraldioen konpartsa	Irakaskintza, 14-16	Kultura
Batun-Batun aisialdi kultur elkarte	Irakaskintza, 14-16	Kultura
Zantzue kultur taldea	Irakaskintza, 14-16	Kultura
Alkartasuna dantza taldea	Irakaskintza, 14-16	Kultura
Barrueta arte elkarte	Irakaskintza, 14-16	Kultura
Bermeoko abesbatza	Irakaskintza, 14-16	Kultura
Bermeoko Txistulariak	Etxebarria tar Kresentzi, 11	Kultura
Bermeotarrak fanfarrea	Irakaskintza, 14-16	Kultura
Erroxape emakumeen elkarte	Erreten Lamera, z/g	Kultura
Asociación Motera Izaro Bikers	Nekazari, 3	Kultura
Kokotxa kultur taldea	Irakaskintza, 14-16	Kultura
MB 2000 alkarte	Irakaskintza, 14-16	Kultura
Asociación de Bailes Caribeños "Dantzatu Gurekin"	Irakaskintza, 14-16	Kultura

Euskal Langileen Alkartasuna (ELA-STV)	Bidebarrieta, 9	Sindikatua
Langile Abertzaleen Batzordea (LAB)	Etxebarria tar Kresentzi, 5	Sindikatua
Euskadiko Langile Komisioak (CCOO)	Fraileleku, 1	Sindikatua
Iglesia Evangélica de Filadelfia	Talakoetxea	Erlijiokoa
Salón del Reino de los Testigos de Jehová	Aurrekoetxea, 40	Erlijiokoa
Santa Eufemiako parrokia	Eupeme Deuna, 1	Erlijiokoa
Andra Mariko parrokia	Arana ta Gori tar Sabin enp.	Erlijiokoa
Asociación de Jubilados de la Mar	Fraileleku, 1	Hirugarren adina
Demiku Bermeoko Jubilatuen elkarte	Irakaskintza, 14-16	Hirugarren adina
Berton	Intxausti, 16-1	Merkatariak
AECC	Erreten Lamera	Arreta
Haitz Nagusije	Irakaskintza, 14-16	Gizartea
Portu Zaharra Elkarte	Landatxuko Eskilarak, z/g	Kultura/Kirola

## 8.- Azken ondorio batzuk.

Biztanleriaren aurre-azterketari emandako lehen begirada batek erakusten zigun ez zegoela aldaketa handirik sektoreen artean, ez zegoela biztanleri migratzailearen pisu larregirik, eta ez zegoela ere biztanleriaren zahartze nabarmen bat, alde aurretik pentsa zitekeen ez bezala. Baina ordea, bai zela nabarmena 2001 urtetik izandako biztanle kopuruaren beherakada (ea %25 bat). Etxebizitza, ekipamendu eta azpiegiturei dagokionez, erabat hobetu da bere egoera orokorrean 2001 urtetik. Jarduera ekonomikoari dagokionez, apurka-apurkako gainbehera bat antzematen da, batez ere merkataritza txikiarena, salbuespenak kenduta ere (portutik hurbileko ostalaritza establezimenduak).

2018ko uztailean jasotako datuetatik ondorioztatu daiteke Bermeoko alde zaharrak zahartzeko joera duen biztanleri bat daukala, batez ere emakumeen artean. Horrek dakar pertsona bakarreko etxebizitzaren kopuru nabarmena dagoela, herrialdea baino errenta baxuagoa duen udalerrri baten kokatuak. Izan ere, batez besteko errenta pertsonala 17.975 €-koa da, Bizkaiko 19.589 €-koarekin konparatuz.

Nahiz eta EUSTAT-ek ez duen errentari buruzko informazio banakatua ematen barrutiz barruti, bertan bizi diren pertsonen profil sozio-laborala begiratura, espero daiteke barruti honetan errenta txikiagoa izatea.

Era berean, langabezian dagoen biztanleria herrialdearen gainerakoan dagoena baino handiagoa da, %11,65 bat %8-rekin konparatuz. Horrek, errenta datuekin batera, ezaugarri ekonomiko oso zehatza duen biztanleri bat erakusten du. Eta horregatik ezin izan dira egin aurreikusitako obrak zenbait kasutan.

Izan ere, etxebizitzek zahartze prozedura bat jasan dute, beraien %40ean ez baita eraberritze obrarik egin. Horrek zenbait arazo dakartza:

- Hezetasunak horma, zoru eta sabaietan (%46,6)
- Toki falta (%20,8)
- Arrakalak horma eta forjatuetan (%19,1)

Bestalde, eta etxebizitzaren adinaren ondorioz ere, auzokideen %45,5-k uste du eraikinen lehentasunetako bat suteen aurkako segurtasuna hobetzea dela.

Auzokideek beraiek gehien nabarmendutako arazoa zarata da, bai kanpokoa (%46,6), bai erkide barrukoa (%20,8). Horrez gain, irisgarritasuna hobetzea funtsezkoa da, bai kaleetako, bai etxebizitzetako. 75 urtetik gora duen biztanleri parte handi bat duen esparru

bat da, 14 urtetik beherako umeekin bizi dena. Adin talde biak dira barrutiko biztanleriaren , %24 suposatzen dutenak.

## 9. 2018ko ekaineko azterketa soziologikoaren metodologia.

Azterlan hau sendotzeko egindako azterketa soziologikoa azterketa-eremu geografikoan kokatutako familia-etxebizitzetara zuzendutako galdetegi pertsonal batean oinarritu da.

Lagin-esparrua egituratzeko EUSTATen kale-izendegian oinarritutako kale eta eskaratzen zerrenda bat izan da abiapuntua.

Tokiko-lana egiteko ahalegina egin da solairu anitzeko eraikinetan galdetegi bat betetzen gehien eraikineko, era horretan gune osoan hedatze maila egokia lortzeko, eta batez ere, ahal ziren eraikin gehiei buruzko informazioa eskuratzeko.

Etxebizitza hautatu ondoren, adin nagusiko pertsona batekin hitz egitea bilatu da, etxebizitzaren izenean hitz egin dezakeena eta eztabaidatu nahi diren gaiei buruz ezagupen nahiko duena, zeren eta ez dira soilik iritsi aldagaiak jasotzen, baizik eta datu objektiboak eraikin, etxebizitza edo bertan bizi diren pertsonen buruz.

Zentzu honetan, erabilitako galdetegiak maila ezberdinetako informazioa jasotzen zuen.

Auzo edo guneari buruzko galdera orokorrak.

Etxebizitza kokatzen den eraikinari buruzko galderak.

Etxebizitza, bere ekipamendu eta gabeziei buruzko galderak.

Bertan bizi diren pertsonen buruzko galderak (ezaugarri soziodemografikoak, errenta ezaugarriak...).

### INKESTAREN FITXA TEKNIKOA

**Unibertsoa:** 3.267 etxebizitza non gutxienez pertsona bat dagoen errolatua mugatutako eremuan. Eremuan 3.265 pertsona daude errolatuta, baina horrek ez du esan nahi denek familia-etxebizitzatan errolatuta daudenik.

**Lagina:** 178 etxebizitza, 424 pertsonen buruzko informazioa ematen dutenak.

**Akats tarte:**  $\pm 1,5\%$  etxebizitzetako buruko informazioari dagokionez p.q. 0,5-ko egoera okerrenagoan.

**Metodologia:** inkesta pertsonala, 10 minutuko batez besteko iraupenarekin.

**Laginketa:** Gutxienez galdetegi bat lortzea eraikin bakoitzeko izan da asmoa; hala ere, eraikin hutsak egon dira edo non ez den posible izan laguntza lortzea.

**Informazioaren tratamendua:** nahiz eta informazioa geokodifikatu egin den, era horretan bermatzeko azterketa eremuaren barruan dagoela eta eraikinen egoerari buruzko erreferentziak eskuratzeko, informazioa era anonimoan tratatu da eta ez da inola ahalbideratu informazioa eman duen pertsonaren identitatea jakitea, era horretan DBLOren baldintzak betez.

**Tokiko lana:** tokiko lana 2018ko apirilaren 3 eta 20 artean egin da.

## **5. HIRI-ZERBITZUERI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Atal honek alde zaurretik dauden azpiegituren oinarritzko ezaugarriak jasotzen ditu gaur egun eskuragarri dagoen informazioan oinarrituz. I.9 plano sortan islatzen da grafikoki.

### **1.- Udalak kudeatutako sareak.**

#### **1.1.- Ur-hornidura sarea.**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kudeatzen du.

Alde Zahara Bermeo azpi-sisteman sartzen da. Bost eroanbidez osatzen da (Golako, Sollube, San Andres, Frantxuene eta Errotak). Eroanbide hauek, hartutako ura Almikeko edateko uren araztegira (EUA) eramaten dituzte. EUAra heltzen den ura tratatu egiten da ostean udalerriko biltegien artean banatu ahal izateko. Ez dago hornidura arazorik, agorte sasoko uneko uneetan izan ezik, eta bigarren mailako eroanbideak nahiko dira abonatu, hidranteen eta sute-ahoen kontsumoa hornitzeko.

HAPOeko dokumentazio grafikoaren arabera, badaude sareko tarte batzuk fibrozementuz egindakoak. Hauek Kai Bidean (kasino inguruan eta Lamera parkearen hasieran) eta Arresi Kanean (Kaleko bide-gurutzea eta 58. zenbakiaren artean) kokatzen dira. Hau 60. eta 70. Hamarkadetako eraikinetan ugari erabili zen material bat da, baina gaur egun debekatua dagoena osasunarentzat arriskutsua izan daitekeelako. Hori dela eta, apurka apurka ordezkatzeko ari da.

#### **1.2.- Saneamendu sarea-hondakin urak.**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kudeatzen du.

Estolderi-sarea antzinatasun ezberdinekoa da. Banakatua da urbanizazio berrietan, eta beste tarte batzuk ere badaude banakatuak, baina orain dela gutxi arte, sistema bateratu batera husten zuten. Sarearen igarobidean nabarmentzekoa da estalitako erreka eta errekaak erabiltzen direla bere osagai bezala, eta horrek bere arazoak dakartza.

Indarrean dagoen Plan Berezia egin zenean, inolako tratamendu gabe isurtzen diren portu inguruan, Lamera parkearen ondoan, horrek zekartzan usain eta uren kutsadura arazoekin.

Gaur egun "ekaitz tanke" baten lanak burutu dira Erribera plazan. Honek gaur egungo estolderi sarearen hondakin urak hartzen ditu eta Lamiarango hondakin uren araztegira (HUA) punpatu, gaur egungo portuko isurketak saihestuz.

Etorkizuneko lehen tasun bezala, sarea unitarioaren igarobideak banakatutako sare sistema batez ordezkatzeko bultzatu beharko litzateke.

#### **1.3.- Saneamendu sarea-euri urak.**

Gaur egun daude euri-uren saneamendu sare tarteak hemen kokatzen dira:

- Ertzilla kalea, 2 y 11. zenbakien artean.
- López de Haro kalea, Lamera parke ingurua eta Kasino inguruan.
- Prantzisko Deuna kalea, Alde Zaharretik kanpo.

Sarea osatzeko aurreikusten diren jarduketak I.9.1 planoan islatzen dira grafikoki.



#### **1.4.- Herri-argiteria.**

Gaur egungo herri-argiteri sarea nahiko da bere funtzioa betetzeko. Hala ere, iluminazio sistema eta farol tipo ezberdinak ikusten dira gunearen arabera. Bere banaketa I.9.6 planoan jasotzen da.

Ez da hasiera batean Planetik zabaltze edo hobetze jarduketarik, hauei ekin baitzaio edonola ere zuzenean aurrekontu baliabideen arabera.

### **2.- Udalaz kanpo kudeatutako sareak.**

#### **2.1.- Elektrizitate sarea.**

Iberdrolak emandako planoetako informazioaren arabera, Bermeoko alde zaharrean behe tentsioko airezko eta lurrazpiko sarea dago. Nagusi da lurrazpikoa, nahiz eta egon badauden tartek airezko sarekoak zenbait tokitan. HAPOk emandako irizpideak jarraituz, erronketariko bat erdi eta behe tentsioko lerro eta transformazio-zentro guztiak lurrazpikoak izatea da. Bere banaketa I.9.3 planoan jasotzen da.

Indar elektrikoaren banaketa sareak airezko igarobide eta fatxadetan lotutako arien ondoko tartekak ditu:

- Lope Díaz de Haro Kalea.
- Bolatoki.
- Lamera Ibilbidea.
- Torronteroko Enparantza eta Andramari Kalea Bidebarrieta Kalera arte.
- Bidebarrieta kalea, Baztarre Ibiltokia eta Doniene Kalea artean.
- Doniene Kalea, Bidebarrieta eta Arresi Kalea artean.
- Areilza Kalea.

Bere lurperatzea proposatzen da Planeko aurreikuspenak egiten diren heinean.

#### **2.2.- Gas sarea.**

Naturgasek emandako planoetako informazioa aztertu da. Bere banaketa I.9.4 planoan jasotzen da.

Aztertutako planoan ikus daitekeenez, ea eraikin guztiek dute gas natural hargunea eraikinean bertan. Agian, hargunea ez duten eraikinetan existituko dira berokuntza eta UBS sistemak beste erregailu batzuekin (esateko, adibidez, gasoleoa) edo berokuntza eta UBS sistema indibidualak (elektrikoak, biomasa...).

#### **2.3.- Telekomunikazio sarea.**

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, alde zaharrean telefono sarea kale hauetatik igarotzen da:

- Talaranzko Kalea, Arresi Kaletik Aurrekoetxea Kalera arte.
- Arresi Kalea, Bizakiko Jaurerria Kalea eta Ongintza Kanean bide-gurutze artean.
- Nekazari Kalea, Nardiz tar Jon Kalea eta Ispizua tar Segundo Kaleen artean.
- Ispizua tar Segundo Kalea eta Prantzisko Deuna Kalea.
- Kai Bidea eta López Díaz de Haro, Ibarluze tar Kosme Kalera arte.

Bere banaketa I.9.5 planoan jasotzen da.

Gaur egun, telefono sarea fatxada nagusitik igarotzen da bloke askotan, eta hori igarobidetik eraman beharko litzateke.

Nola zuntz optiko sareko tarte batzuk dauden gainerako hiri-bilbearen hurbileko guneeetan (Arresi Kalean, Ispizua tar Segundo Kalean eta Prantzisko Deuna Kalean), ahal izango litzateke sarea alde zaharrera zabaldu.

#### **2.4.- Hiriko hondakin solidoak.**

2004 urtera arte hiriko hondakin solidoen (HHS) kudeaketa Garbikerren zabortegei kontrolatuen eta Bermeoko erauste-labearen bitartez egiten zen. Bermeoko erraustegiak Bermeo, Busturia, Sukarrieta eta Mundaka udalerrien HHSk kudeatzen zituen eta baita udalerrri hauetako hondartzetan jasotako hondakinak. Era xehatuan, planta honek bai hiriko bai industriako hondakinak tratatzen zjtuen, nahiz eta azken hauek bakarrik osoaren %0,5 suposatu.

2004 urtean Bermeoko erraustegia itxi zen, eta gaur egun Urdaibaiko hiriko hondakin solidoen kudeaketarako azpiegitura nagusiak Gernikako transferentziagunea eta Jatako zabortegea. Gaur egun herrian Garbigune bat dago.

Kontsultatu diren iturrien arabera, 2015 urtean Bermeok berak sortarazitako 5.000 tona zaborren ea %27 errekueratzea lortu zuen. Beste batzuen artean, establezimentutan beira birziklatzeko zerbitzu berezia bezalako neurriei ezker.

Alde zaharrean, hondakinen bilketa ohiko eran egiten da, hau da, kalean kokatutako edukiontzien bidez biltzen da eta kamioen bidez jasotzen da. Guztira, gaikako bilketako 47 edukiontzi daude, era honetan zerrendatuak (2016ko uztaila):

Hondarra	Beira	Marroia	Papera	Ontziak	Pilak	Arropak	Olioia	Guztira
11	9	0	12	10	1	1	3	<b>47</b>

Bilketa guneak ondoko kokapenetan daude:

- Arresi Kalea eta Tonpoi Kaleen artean (1 hondarrarentzat, 1 beirarentzat, 2 paperarentzat, 2 ontzientzat, 1 pilentzat, 1 arropentzat, 1 olioarentzat).
- Arresi kalea, Nekazari Kalerekin bidegurutze parean (2 hondarrarentzat, 1 paperarentzat, 2 ontzientzat).
- Arresi Kalea eta Intxausti Kalearen arteko bidegurutzea (1 hondarrarentzat, 1 beirarentzat, 1 paperarentzat, 1 ontzientzat).
- Arresi Kalea, Nardiz tar Jon Kalearekin bidegurutze parean (1 hondarrarentzat, 1 paperarentzat).
- Ispizua tar Segundo Kalea, frantziskotarren komentuaren parean (1 hondarrarentzat, 1 beirarentzat, 1 paperarentzat, 1 ontzientzat).
- Kai Bidea, Kasinotik hurbil (2 hondarrarentzat, 2 beirarentzat, 1 paperarentzat, 1 olioarentzat).
- Kofradia Kalea eta Instituto Social de la Marina-ren artean (2 hondarrarentzat, 3 beirarentzat, 1 ontzientzat).
- Portuan (1 hondarrarentzat, 1 beirarentzat, 1 paperarentzat, 1 ontzientzat).

- Arana Goiri tar Sabinen plaza, Bidebarrieta Kalerantz (1 hondarrarentzat, 1 beirarentzat, 1 paperarentzat, 1 ontzientzat, 1 pilentzat, 1 olioarentzat) eta Arostegi Kalerantz (1 hondarrarentzat, 1 beirarentzat, 1 paperarentzat, 1 ontzientzat).
- Arresi Kalea eta Ongintza Kalearen arteko bidegurutzean (1 beirarentzat, 1 paperarentzat).

Bere banaketa I.9.7 planoan jasotzen da.

Hondakin organikoak ("bosgarren edukiontzia") jasotzeko sistemaren ezarketa prozedura 2019ko martxoan hasi da.

## 6. MUGIKORTASUNA ETA ESPARRU PUBLIKOEN IRISGARRITASUNA.

### 1.- Bide sarea.

Udalerriko bide ardatz nagusietako bat berak ere ez du zeharkatzen Alde Zaharra. Alde Zaharrak bere sare eta joan-etorri propioak ditu eta, zentzu horretan, irla bat da hiri-bilbearen barruan. Hala ere, badaude bi bide nagusi bera zeharkatzen dutenak (Arresi kalea goiko aldean eta Frantzisko Deuna beheko aldean), eta badaude ere barneko ardatz batzuk (Intxausti-Bidebarrieta, Nardiz tar Jon-Ertzilla, Andra Mari..), non hausnartu beharko litzateke bere ibilgailu-oinezko erabilera bateratuari buruz. Aparkalekuei dagokionez, 2001eko Plan Berezia indarrean egon den denboran Josefinetako parkina egin da, eta horrek aparkalekuen eskaintza handia suposatu izan du alde zaharreko eta alboko guneeetako biztanleentzat. Edonola ere, alde zaharraren beheko aldeko guneeentat aparkalekuen arazoa konpontzeko zaila izaten jarraitzen du, Lameran eta portuan dauden eremu apurretan oinarritzen baita. Aldi baterako aparkalekua eta zamalanak hausnartu beharreko beste ikuspegi batzuk dira.

Barruko kaleak, bai ibilgailuentzakoak, bai oinezkoak, orokorrean egoera onean daude. Batzuk urbanizazio berria daukate. Arazoak nolabait bere funtzionaltasun ikuspegitik datoz, eta baita ere trafikoaren antolaketa eta sarrera-irteeren mugaketatik. Antolaketa helburua bide sareari dagokionez gehien bat lortu nahi diren suspertze sozio-ekonomiko eta kultura ondarearen babes helburu orokorretara egokitzea izango da.

Bide-sarearen arazo bat, zaila konpontzeko nahiz eta bera arintzeko zenbait ekintza aurreikusi daitezkeen, irisgarritasunarena da. Alde Zaharrak malda handiak ditu hegoalde (portua) iparraldera (Arresi kalea). Ordea, irisgarritasuna hobea da bere ardatz perpendikularretan. Honi buruz, Bermeoko irisgarritasun Planak ekintza sorta bat jasotzen zuen, bere egikaritza baloratuz, ahal den neurrian kontutan hartuko direnak.

Bestalde, 2009 urteko Bermeo Hiribilduko Hiri-mugikortasun eta Aparkaleku Planak diagnostiko orokor bat egin zuen eta zenbait proposamen ere. Horietako batzuk Alde Zaharrari buruzkoak ziren. Orain dela gutxi, Udalak gai horri buruzko hausnarketa prozedura bati eman dio amaiera, eta handik bialitate eta mugikortasunari buruzko zenbait proposamen atera dira, hauetatik:

- Espaloiak eta errepideak bateratu estetika aldetik.
- Zoladuraren kalitatea kontutan hartu, irristagarri edo ibiltzerako orduan hesi edo eragozpen diren zoruak saihestuz.
- Ardatz nagusietatik hasi (Intxausti, Nardiz tarJon, Doniene eta Plaza)
- Hondakin-ontziak lurperatzeko aprobetxatu.
- Sartzeko baimenak beharrezkoak direnera mugatu. Hori betetzea bultzatu berri-emate bitartez (abisua) eta zorrotz bigilatuz.
- Zamalanetarako eremuak mugatu, eremuak banatuz eta beharrak fatxadez-fatxada banakatuz, zorrotz betearaziz ordu eta denbora mugak.
- Ibilgailuen irteera zuzena erraztu, Alde Zaharra zeharkatzeko beharrik gabe. Irakaskintzako aparkalekuaren eta beste partikular batuen irteera zuzena.
- Alde Zaharraren Peatonalizazio Plana abian jarri.
- Eskailera mekanikoa Arana tar Sabinen Enparantza eta Ibarluze tar Kosme lotzeko.
- Alde Zaharrerako sarrerak portutik eta Lamerako parketik.
- Aparkalekua konpondu Osakidetzaren inguruan eta San Juan arku despejatu.

## 2.- Mugikortasun publiko eta pribatua.

**Mugikortasun publikoa** egituratzen da gehien bat autobus, tren eta taxi garraioaren inguruan.

- **Autobus lineak** (Bizkaibus zerbitzua; geltoki nagusia Lameran, z/g):
  - A3515 Bilbao-Zornotza/Amorebieta Etxano-Gernika-Bermeo.
  - A3515 Bermeo- Gernika-Zornotza/Amorebieta Etxano-Bilbao.
  - A3528 Bermeo- Mungia-Derio-UPV/EHU.
  - A3527 Bilbao-Mungia-Bermeo.
  - A3524 Bermeo-Bakio.
- **Trenbidea** (Euskotren; geltokia Kai Bidean, 2):
  - Bermeo- Zornotza/Amorebieta Etxano linea, Bilbao edo Donostiara lotzen duena.
- **Taxi zerbitzua** (geltokia Lameran, z/g).

Maiztasuna eta hurbiltasunari ezker, garraio publikoa alternatiba izan daiteke ibilgailu pribatuz bitarteko mugikortasunari.

**Mugikortasun pribatuak** pisu nagusia hartzen du gainerako erekin konparatuz. Alde Zaharreko biztanleriak Bermeo osoan suposatzen duen portzentajera (%20 inguru) eramaten baditugu DGT-k ematen dituen datuak 1.800 ibilgailu inguruko parke bat aterako litzateke (hauetatik %70 inguru turismoak) 1.700 gidariko errolda batentzat. Nahiz eta, gehien bat herrien arteko joan-etorrietarako erabiltzen den, joan-etorrien portzentaje nabarmen bat herrian bertan dira, udal bide sarean eragina izanez.

**Beste mugikortasun aukerei** dagokionez (bizikletaz, oinez, etab.), bere gaur egungo egoera, osaketa eta hobekuntza azertu beharreko beste gai bat da, sustatze neurri bezala, Plan Berezi berrian. Interesgarria da Hiriko Mugikortasuna eta Aparkaleku Planean datorren datua, hau da, hiritarren joan etorrien %70 inguru hirigunean oinez direla.

## 7. INGURUMEN BALDINTZAPENAK.

### 1.- Hiriko ingurumenaren analisi labur bat.

Bermeo udalerria Bizkaiko Herralde Historikoko kostaldeko erdiko aldean kokatzen da, Busturialdea eskualdean. Iparraldetik Kantauri itsasoarekin mugatzen du eta Bakio (mendebaldetik), Mungia eta Meñaka (hego-mendebaldetik) Busturia eta Arrieta (hegoaldetik) eta Mundaka (ekialdetik) udalerriekin mugatzen du.

Udalerri mugak 34,12 km<sup>2</sup> azalera du, eta topografi nahiko malkartsua du ezaugarri gisa. Bertan nabarmentzen dira Burgoa, Garbola, Sollube eta Katillotxu mendiak. Baditu ere Bizkaiko kostaldeko elementu geografiko ezagunetako batzuk, esateko, Gaztelugatxe, Aketxe irla, Matxitxako lurmuturra eta Izaro irla.

Alde Zaharraren Babes eta Kontserbaziorako Plan Bereziaren eremua portu zaharraren ondoan kokatzen da eta Bermeo udalerriko hirigunearen erdialdea da.

Litologiari dagokionez, kareharri tupatsuen, tupa karetsuen eta kalkareniten arteko txandakatze baten gainean kokatzen da gehien bat; iragazkortasun baxua erakusten dute pitzaduragatik eta akuiferoen kutsadura zaurkotasun oso txikia. Hala ere, eremuaren hego-mendebaldean, eta gaur egun estalita dauden Artike eta Landabaso errekei lotuta, material geologikoak azalerako metatze alubiarrekin datoz bat; iragazkortasun ertaina pitzaduragatik erakusten dute eta akuiferoen kutsadura zaurkotasun ertaina.

Eremuaren iparraldeko muturra, non psikiatrikoa eta Talako parkea kokatzen diren, tokiko mailan zientzia, hezkuntza eta dibulgaziorako interesa duen Bermeoko Rasa interes geologikoko gunerekin bat dator.

Plan Bereziaren eremua Urdaibai Biosfera Erreserbaren barruan dago, nahiz eta bere erabilera eta kudeaketarako egitamu gidariak dion eremu honen antolaketa hirigintza plangintza bitartez egin beharko dela, hiri-lurzoru baita, Tala azpiko itsaslabarrak izan ezik. Hauek kostalde-eremuan daude sartuta, eta babes berezia dute.

Bestalde, kontutan izan behar da Itsasertzari buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legeak eta bera garatzeko Erregelamenduak araututako itsas-lehortar jabari publikoak ukitzen duen eremua ete bere zorguneak.

Ingurumen aldetik balioa duten beste eremu batzuk Lamera eta Talako parkeak dira, Plan Bereziko eremuaren barruan zuhaitzak dituzten gunere libre publiko bakarrak baitira.

Faunari dagokionez, Bermeoko kostaldea Hegazkinentzako babes bereziko eremu (HBBE) den Mundaka-Ogoño itsasmuturra itsas-eremuaren ondoan dago; bertan nabari daiteke itsasaldeko abifauna dagoela. Aurki daitezke, beste batzuen artean, ekaitz-txori txiki (*Hydrobates pelagicus*) eta ubarroi-motxodun (*Phalacrocorax aristotelis*) aleak eta gabai mediterranea (*Puffinus mauretanicus*) eta zanga (*Morus bassanus*) bezalako itsas hegazti migratzaileak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasun eta Natura Ingurumen Sailaren txostenak adierazten du ere mehatxatutako kiropteroak egon daitezkeela Bermeoko alde zaharreko etxeetan.

Aztartzen den eremuan dagoen gainerako fauna hiriko esparruetara egokitutako espezieak dira.

Paisaiari dagokionez, Bermeo udalerria ea guztia arro bisual bakar bat da, eta arro horren kostaldea katalogatutako itsas eragineko paisaiatzat hartzen da. EAEko ingurumen

kartografiaren arabera, aztertzen den eremua hiriko paisaia unitate da, non gizakia den nagusi, nahiz eta itsasaldeko geomorfologi dominatzailearekin lotura hestua izan.

## 2.- Eremuko ingurumen arazoak.

### 2.1.- Zarata.

Herriak orain dela gutxi egindako zarata mapa bat dauka.

213/2012 Dekretua aplikatuz mugatutako foru-errepideen zortasun akustikoko guneak daude, eta honela definitzen dira hauek: garraiobide-azpiegitura bati lotutako lurralde-zerrenda, azpiegitura horren inpaktu akustikoaren gehieneko maila irudikatzen duena eta azpiegituraren funtzionamendua lurzoruaren erabilerekin bateratzen laguntzeko balio duena. Gune hauek Plan Berezian sartu behar dira.

Edonola ere, hirigintza plangintza berriaren zehaztapenek, zonifikazio akustikoari eta kalitate eta isuri akustikoen helburuei dagokienez Zarataren azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriak 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak eta EAEko zarata buruzko 213/2012 Dekretuak ezarritako zarata mugak beteko direla ziurtatu beharko dute.

### 2.2.- Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruek.

2014. urtean IHOBek egindako EAEn Kutsatuta egon daitezkeen Lurzoruen Inbentarioaren berrikuspen zirriborroaren arabera, alde zaharraren inguruan kutsatuta egon daitezkeen bost kokapen aurkitzen dira, guztira 0,14 ha-ko gainazala okupatzen dutelarik. Kokapen hauek, batez ere, industria jarduerekin daude lotuta.



Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen kokapena Bermeon. Iturria: GEOEUSKADI

MOTA	Kodea	Azalera
Zabortegia	48017-00054	329 m <sup>2</sup>
Industrialia	48017-00024	245 m <sup>2</sup>
Industrialia	48017-00032	254 m <sup>2</sup>
Industrialia	48017-00034	602 m <sup>2</sup>
Industrialia	48017-00033	34 m <sup>2</sup>

*Bermeo udalerrri mugan kutsatuta egon daitezkeen tipologia (Ihobe)*

Bestalde, kontutan hartu beharrekoa da, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko, ekainaren 25eko, 4/2015 Legean ezarritakoaren arabera, lurzorua kutsa dezaketen jarduera eta instalazio batzuk Legearen I. eranskinen CNAEko atal batekin bat datozelako jotzen dira kutsagarritzat, nolahi ere, jarduera horiek nola egiten diren ikusita, argi dago nekez gerta daitekeela aldaketarik lurzoruaren kalitatean. Horrek, ordea, ez du galarazten araudiak ezarritako lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpenaren prozedura egin behar izatea, horregatik jardueraren nondik norakoak edo ekoizpen-gaitasuna bezalako ikuspegiak aztertu beharko dira. Beraz, inbentariatutako lursail bakoitzaren azterketa zehatza egin beharko litzateke daukan kutsatzeko gaitasuna zehazteko asmoz, beti ere, aurrez aipatutako jarraibideak ezarritako irizpideak jarraituz.

### **2.3.- Ingurumen eta teknologiko arriskuak.**

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen kartografiaren arabera, higadura baxua da orokorrean, itsaslabarren ondoko goiko aldea kenduta, eta agian, modelizazioan distorsio bat dela eta, Lamerako parkearen inguruan.

Akuiferoen zaurkortasuna oso baxua da.

Sute arriskua altua da, egurrezko eraikinak baitaude dentsitate altu batean.

Euskal Autonomi Erkidegoan arrisku sismikoa ekialderantz doa handitzen. Bermeo udalerrri osoak IV-V mailako arrisku sismikoa aurkezten du, honek 500 urteko aldiaren Mercalli eskalan IV-V graduko lurrikara bat emateko aukera adierazten duelarik.

Beheko aldean, Artike ibaiari lotutako uholde arriskua agertzen da, 500 urteko errepika denborarekin.

Arrisku teknologikoei dagokienez, Bermeon ez dago Seveso II araudiak erregulatzen duen produktu kimiko kopuru handia daukan lekunik. Ezaugarri hauek betetzen dituen eta gertuen dagoen enpresa Maier da, Ajangiz udalerrian kokatutakoa. Ezaugarri hauek betetzen dituen eta gertuen dagoen enpresa Maier da, Ajangiz udalerrian kokatutakoa. Hala ere, planoetan islatu da antzinako errepide nagusitik merkantzia arriskutsuen garraioari lotutako arrisku bat.

Azkenik, ezin da aipamen gabe utzi itsasoaren arriskua, bai itsas-mailaren hazkundera dela eta, bai olatu handiak dauden uneak direla eta. Honi buruz, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiko Zuzendaritzaren txostenak dio lanean ari dela arriskuak identifikatu eta prebentzioko neurriak finkatzerakoan. Azken urteotan, Bermeoko portuko olatu-hormaren sendotzerako lan handiak egin dira, era horretan kalte materialak eta pertsonalak gutxitu ahal izateko.



## 8. KULTURA ONDAREA.

Gaur egungo Plan Berezia era xehatuan dakar bere garaian Alde Zaharrean zeuden ondasun katalogatu eta inbentariatuen zerrenda.

Bestalde, arloan eskumena duten organoetatik jasotako txostenen arabera, ondoko elementuak adierazten dira.

### ONDARE HISTORIKO-ARKITEKTONIKOA

**Euskal Herriko Autonomi Erkidegoak Monumentu/Monumentu Miltzo bezala aitortutako ondasun higiezinak**

Honek dira:


- Alde Zaharra. EHAA 1996/06/18.
- Udaletxea. EHAA 1995/12/31.
- Ertzilla Dorretxea. EHAA 1984/08/04.
- Eufemi Deuna eliza. EHAA 1995/12/27.
- Andra Mari Deuna eliza. EHAA 1984/08/04.
- San Juango atea. EHAA 1995/12/14.

### ONDARE ARKEOLOGIKOA

**Euskal Herriko Autonomi Erkidegoak aitortutako Gune Arkeologikoak**

Hau da:

*Bermeoko Alde Zaharreko arkeologia gunea. EHAA 1994/10/11.*



**Alde zaharreko gune arkeologikoaren mugaketa.**

## KATALOGATUTAKO ELEMENTUEN BABESA

Indarrean dagoen Balan Bereziak katalogatutako elementuen katalogo zabal bat jasotzen du. Bere araudiak Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legean ezarritako esparru arautzailea hartzen du erreferentzi gisa beraiek arautzeko.

Babes berezia.

- *Udaletxea.*
- *Andra Mari eliza.*
- *Ertzilla dorretxea.*
- *Hiru txorroten iturria.*
- *Eufemi Deunaren eliza.*
- *San Juango atea eta harresiaren zatiak.*

Babes ertaina.

- *Markina baserria (desagertua).*
- *Udaletxeko iturria.*
- *Kasinoa.*
- *Udal kontserbategia.*
- *Etxea Intxausti 2.*
- *Kioskoa.*




**Babes berezi eta babes ertaineko ondasunen planoak.**

Oinarritzko babesa.

- *Etxea Ertzilla 1 / Talaranzko 8*
- *Etxea Ertzilla 4*
- *Etxea Ertzilla 12*
- *Etxea Eskinarruaga 8*
- *Etxea Eskinarruaga 20*
- *Etxea Eupeme Deuna 12*
- *Etxea Gaztelu Enparantza 1*
- *Etxea Intxausti 12*
- *Etxea Intxausti 28*
- *Etxea Intxausti 32*
- *Etxea Intxausti 34*
- *Etxea Intxausti 31*
- *Etxea Istua 3*
- *Jon Nardiz 6*
- *Etxea Jon Nardiz 8*
- *Etxea Jon Nardiz 12*
- *Etxea Jon Nardiz 13*
- *Etxea Jon Nardiz 14*
- *Etxea Jon Nardiz 23*
- *Apioza 2*
- *Etxea Jon Nardiz 25*
- *Etxea Jon Nardiz 26*
- *Etxea Jon Nardiz 27*
- *Etxea Jon Nardiz 29*
- *Etxea Jon Nardiz 51*
- *Etxea Jon Nardiz 53*
- *Etxea Jon Nardiz 57*
- *Etxea Jon Nardiz 59*
- *Etxea Jon Nardiz 32*
- *Etxea Jon Nardiz 34*
- *Etxea Jon Nardiz 36*
- *Etxea Jon Nardiz 38*
- *Etxea Jon Nardiz 40*
- *Etxea Jon Nardiz 42*
- *Etxea Jon Nardiz 44*
- *Etxea Jon Nardiz 54*
- *Etxea Klara Deuna Eskilarak 6*
- *Etxea Kosme Ibarlucea 1*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 2*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 4*
- *Etxea Arana Tar Sabin Enparantza 4*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 6*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 10*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 18*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 20*
- *Etxea Lopez Diaz De Haro 5*
- *Etxea Lopez Diaz De Haro 10*
- *Etxea Lopez Diaz De Haro 11*
- *Etxea Lopez Diaz De Haro 12*
- *Etxea Lopez Diaz De Haro 14*
- *Etxea Lopez Diaz De Haro 15*
- *Etxea Prantzisko Deuna 8*
- *Etxea Prantzisko Deuna 10*

- *Etxea Segundo Ispizua 2*
- *Etxea Talakoetxea 3*
- *Etxea Talakoetxea 5*
- *Etxea Talakoetxea 7*
- *Etxea Talakoetxea 11*
- *Etxea Talakoetxea 15*
- *Etxea Talakoetxea 17*
- *Etxea Talakoetxea 21*
- *Etxea Talakoetxea 20*
- *Etxea Talaranzko 10*
- *Etxea Talaranzko 12*
- *Etxea Utsa Eskilarak 1*
- *Etxea Utsa Eskilarak 3*
- *Etxea Utsa Eskilarak 5*
- *Etxea Utsa Eskilarak 7*
- *Etxea Utsa Eskilarak 9*
- *Etxea Utsa Eskilarak 4*
- *Etxea Arana Tar Sabin 10*
- *Etxea Utsa Eskilarak 6*
- *Etxea Utsa Eskilarak 8*
- *Etxea Utsa Eskilarak 10*
- *Etxea Mikel Deunaren Enparantza 4*
- *Arostegi Dorrea*
- *Etxea Arostegi 3*
- *Etxe modernista Arostegi 37*
- *Postetxe zaharra / Udal liburutegia Lamera z/g*
- *Etxea Lamera 1*
- *Etxea Jon Nardiz 22*
- *Etxea Erremedio 18*
- *Etxea Erremedio 22*
- *Etxea Erremedio 24 - 26*
- *Etxea Mikel Deunaren Enparantza 3*
- *Etxea Doniene 9*
- *Etxea Aldatzeta 4*
- *Etxea Aldatzeta 21*
- *Etxea Aldatzeta 23*
- *Etxea Andra Mari 2*
- *Etxea Andra Mari 4*
- *Etxea Andra Mari 6*
- *Etxea Andra Mari 11 / Bidebarrieta 23*
- *Etxea Andra Mari 13*
- *Etxea Andra Mari 15*
- *Etxea Doniene 13*
- *Etxea Armendurua 3*
- *Etxea Armendurua 6*
- *Etxea Arostegi 22*
- *Etxea Arostegi 29*
- *Etxea Arresi 1*
- *Etxea Arresi 5*
- *Etxea Artza 4a*
- *Etxea Artza 14*
- *Etxea Benanzio Nardiz 23*
- *Etxea Benanzio Nardiz 24*
- *Etxea Benanzio Nardiz 26*
- *Etxea Bidebarrieta 6*
- *Etxea Bidebarrieta 9*
- *Etxea Bidebarrieta 10*

- *Etxea Bidebarrieta 11 / Talaranzko 15*
- *Etxea Bidebarrieta 13 / Talaranzko 14*
- *Etxea Bidebarrieta 15*
- *Etxea Bidebarrieta 19*
- *Etxea Doniene 3*
- *Etxea Doniene 5*
- *Etxea Doniene 11*
- *Etxea Doniene 15*
- *Etxea Erremedio 1*
- *Etxea Erremedio 3*
- *Etxea Erremedio 11*
- *Etxea Erremedio 20*
- *Etxea Erremedio 46*
- *Etxea Erremedio 56*




**Oinarrizko babeseko eraikinen plano.**

Zatikako babesa.

- *Etxea Andra Mari 21*
- *Etxea Aldatzeta 12*
- *Etxea Arostegi 4*
- *Etxea Arostegi 18*
- *Etxea Arostegi 20*
- *Etxea Arostegi 23*
- *Etxea Arostegi 1*
- *Etxea Arostegi 6*
- *Etxea Arostegi 25*

- *Etxea Aurrekoetxea 22*
- *Etxea Aurrekoetxea 24*
- *Etxea Aurrekoetxea 26*
- *Etxea Aurrekoetxea 45*
- *Etxea Benanzio Nardiz 13*
- *Etxea Benanzio Nardiz S/N (Junto Al 18)*
- *Etxea Benanzio Nardiz 20*
- *Etxea Benanzio Nardiz 21*
- *Etxea Benanzio Nardiz 22*
- *Etxea Bidebarrieta 7*
- *Etxea Erremedio 9*
- *Etxea Erremedio 16*
- *Etxea Erremedio 32*
- *Etxea Ertzilla 5*
- *Etxea Ertzilla 2*
- *Etxea Eupeme Deuna 11*
- *Etxea Eskinarruaga 3*
- *Etxea Eskinarruaga 5*
- *Etxea Eskinarruaga 6*
- *Etxea Eskinarruaga 16*
- *Etxea Intxausti 10*
- *Etxea Intxausti 35*
- *Etxea Jon Nardiz 55*
- *Etxea Jon Nardiz 56*
- *Etxea Jon Nardiz 35*
- *Etxea Jon Nardiz 46 Jon Nardiz 46*
- *Etxea Talakoetxea 9*
- *Etxea Torrontero Eskilarak 5*
- *Etxea Prantzisko Deuna 4*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 16*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 13*
- *Etxea Bidebarrieta 17*




**Zatikako babeseko eraikinen plano.**

### Babes morfologikoa.

- *Etxea Andra Mari 3*
- *Etxea Andra Mari 5*
- *Etxea Andra Mari 17*
- *Etxea Andra Mari 8/Talakoetxea 2*
- *Etxea Andra Mari 19*
- *Etxea Aldatzeta 20*
- *Etxea Aldatzeta 22*
- *Etxea Armendurua 1*
- *Etxea Arostegi 10*
- *Etxea Arostegi 12*
- *Etxea Arostegi 14*
- *Etxea Arostegi 16*
- *Etxea Arostegi 27*
- *Etxea Arostegi 28*
- *Etxea Arostegi 30*
- *Etxea Arostegi 33-35*
- *Etxea Arostegi 39*
- *Etxea Arresi 7*
- *Etxea Arresi 9*
- *Etxea Arresi 11*
- *Etxea Aurrekoetxea 11*
- *Etxea Aurrekoetxea 17*
- *Etxea Aurrekoetxea 21*
- *Etxea Aurrekoetxea 23*
- *Etxea Aurrekoetxea 28*
- *Etxea Aurrekoetxea 37b*
- *Etxea Aurrekoetxea 39*
- *Etxea Aurrekoetxea 43*
- *Etxea Basterra Ibiltokia 1/Talakoetxea 23*
- *Etxea Benanzio Nardiz 11a*
- *Etxea Benanzio Nardiz 14*
- *Etxea Benanzio Nardiz 15*
- *Etxea Benanzio Nardiz 16*
- *Etxea Benanzio Nardiz 17*
- *Etxea Benanzio Nardiz 18*
- *Etxea Benanzio Nardiz 19*
- *Etxea Bidebarrieta 1*
- *Etxea Bidebarrieta 14*
- *Etxea Bidebarrieta 21*
- *Etxea Bolatoki z/g*
- *Etxea Doniene 7*
- *Etxea Erremedio 30*
- *Etxea Erremedio 34*
- *Etxea Erremedio 36*
- *Etxea Erremedio 38*
- *Etxea Erremedio 40*
- *Etxea Erremedio 42*
- *Etxea Erremedio 48*
- *Etxea Erremedio 50*
- *Etxea Erremedio 52*
- *Etxea Ertzilla 10*
- *Etxea Ertzilla 14 (12 zk.ondoan)*
- *Etxea Ertzilla 14 Bis (16 zk.ondoan)*

- *Etxea Eupeme Deuna 3*
- *Etxea Eupeme Deuna 4-6*
- *Etxea Eupeme Deuna 5*
- *Etxea Eupeme Deuna 7*
- *Etxea Eupeme Deuna 8*
- *Etxea Eupeme Deuna 10*
- *Etxea Eskinarruaga 3 Bis*
- *Etxea Eskinarruaga z/g (5 zk.ondoan)*
- *Etxea Eskinarruaga 10*
- *Etxea Eskinarruaga 12*
- *Etxea Eskinarruaga 14*
- *Etxea Hurtado De Mendoza 14*
- *Etxea Indar Eskilarak 4*
- *Etxea Indar Eskilarak 5*
- *Etxea Intxausti 8*
- *Etxea Intxausti 14*
- *Etxea Intxausti 15*
- *Etxea Intxausti 16*
- *Etxea Jon Nardiz 9*
- *Etxea Jon Nardiz 18*
- *Etxea Jon Nardiz 20*
- *Etxea Jon Nardiz 21*
- *Etxea Jon Nardiz 24*
- *Etxea Jon Nardiz 28*
- *Etxea Jon Nardiz 30*
- *Etxea Jon Nardiz 43*
- *Etxea Jon Nardiz 45*
- *Etxea Jon Nardiz 47*
- *Etxea Jon Nardiz 49*
- *Etxea Kosme Ibarluzea 2*
- *Etxea Kosme Ibarluzea 5*
- *Etxea Nekazari 2*
- *Etxea Prantisko Deuna Atea 7*
- *Etxea Talakoetxea 10*
- *Etxea Talakoetxea 12*
- *Etxea Talakoetxea 14-16*
- *Etxea Torrontero Eskilarak 2*
- *Etxea Sabino Arana Enparantza 117 Kresentzi Etxebarria 1*
- *Etxea Talaranzko 4*
- *Etxea Talaranzko 6*
- *Etxea Talaranzko 21*
- *Etxea Prantzisko Deuna 2*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 12*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 15*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 17*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 22*
- *Etxea Kresentzi Etxebarria 24*





**Babes morfologikoko eraikinen plana.**

Elementu hauek Eusko Jaurlaritzaren inbentarioan adierazitakoekin bat datoz eta alde zaharrear kokatzen diren balioko elementu guztiek hartzen dituzte. Hala ere, gomendatzen da gaur egungo ondare-inbentarioaren berrikuspena, dauden ondarearen beste elementu batzuk kontutan hartuz ere, hau da, ondare etnografiko industrial, naturala, gunee libreak, ingeniartzakoa, etab.

## 9. HIRI-LURZORU ETA INDARREAN DAGOEN PLANGINTZAREN ANALISI OROKORRA.

### 1.- Gaur egungo hiri-antolaketa eredua.

Indarrean dagoen Plan Bereziaren memorian alde zaharraren hiri-bilakaeraren analisi bat egiten zen. Analisi hau baliagarria izaten jarraitzen du eta ondorengo lerroetan jasotzen dugu.

Bermeoko hiribildua da, Bizkaian eratu ziren hirietatik lehena eta harresi handiena zeukana. Beraien guztien ezaugarri orokorrak jarraitzen ditu, hau da, hierarkikoko egituratu gabeko kale paraleloen multzo bat, kale transbertsal batez edo biz zeharkatua eta esparru publikorik gabe. Honek eragiten duena da "bilbe" edo erretikula erregular bat. Kale longitudinalak lurraldea zeharkatzen dute gutxieneko maldaren norabidean eta transbertsalak, gehienekoan, eskailerekin lotuz topografiak hala eskatzen duenean.

Morfologikoki Bermeoko alde zaharra hiri "eratu" edo planifikatua da, ez berez sortutakoa, nahiz eta portu txikiaren, Erribera eta Santa Eufemia inguruan "berezko sortze" aztarnak antzematen diren, seguraski, lehen kokapenei lotuak. Fundatutako hiria da, alde zurretik existitzen zen topografi nabarmeneko bilbe bati egokitua.

Denboran zehar izandako itxura-aldaketa nagusia eraikinen eragindako okupazio mota da, hau da, eraikuntzaren hazkunde bikoitz bat, bai bertikalean, bai horizontalean, barruko esparruak eta karkabak murriztuz eta erdi arako hirien ezaugarri zen eraikin-kale erlazioa aldatuz.

Hau da XIV. mendetik datorren bilbe bat, bere egituraketa orokorrari dagokionez, eta XIX. eta XX. mendeetatik, bere irudiaren finkaketari eta auzo-etxe mota ezaugarritantz bere barneko lur-zatien behin betiko aldaketari dagokionez. Azken hau hasierako artisau prototipotik aldentzen da, eraikinaren ezaugarri tipologikoei eta patioen balio eta zergatiari dagokionez, eta ez horren beste lur-zatien moforlogiari dagokionez:

- Elkartrukatze gune nagusi bezala hiri gotikoak duen lehentasunak suposatzen du kalearentzat lur-zatien ilarako antolaketa bat agertzea. Hauen neurriak ez dio erantzuten modulu finko bati, hau 3,50 metrotik 4 metro arte, batzuetan 6, aldatzen baita, jabearen ahalmenaren eta egurraren ezaugarri teknologikoen arabera, eta altueran bata bestearen gainean jarriz etxebizitza eta merkataritza edo artisau-lantegiko erabilera biak.
- Hau teorian infinituraino zabaldu daitekeen antolaketa bat da. Bere justifikazioa oinarritzen da bai alde zurretik existitzen den bide baten (hemen portua eta Santa Eufemia Talako Andra Marirekin, eta arinago baseliza bat, lotzen zituen Santa Maria kalea izan daiteke) oinarritutako erromatar koadrikulako antolakuntzatik datorren tradizioan, bai ur eta hondakinak hustutzeko duen arrazionaltasunagatik. Azken honek karkaba eratu zuen, ardatz logikoenak zehaztuz.
- XIX. mendearen lehen erdian Alde Zaharreko etxe gehienak behe solairu gaineko bi solairuko gehieneko altuera zuten, eta hiribildu barruan lur-zati ugari zeuden eraiki gabe.....*el 16 de agosto de 1841 resolvió su Ayuntamiento no conceder terrenos para edificar en los arrabales y extramuros sin poblar primero los sitios vacíos e hiermos de la población de los cuales abundaban en el interior de la villa.....*

Alde zaharraren eremua handiegi geratu zen etxebizitza beharrentzat. Eraiki gabeko gunek alde zaharraren goiko aldean kokatuta zeuden gehien bat. Bertan, askotan, eraikinek bakarrik etxe-uhartearen hegoaldeko aurreak edo beheko aldeak okupatzen zituzten. Lur-zatien banaketan argi ikusten da hau. Esandako guneetan ortuak eta etxolak izateak ere, eta ez lur-zatien batze prozedurak, azaldu dezake bere morfologia. Mende horretako lehen zatian hauetako asko zeuden oraindik okupatu gabe. Horrek azaldu dezake ere, aipatutako guneetan kontzentratuta egotea eraikuntza berria 1926ko eraikuntzako udal ordenantzaren arabera.

XIX. mendetik aurrera da erabilerak gehitzen direnean, eta horrek gela gehiago ateratzeko beharra dakar. Etxeek bere garaiera handitzen dute, gehienek alde aurretik dagoen eraikina eraberrituz, antzinako lur-zatien egitura mantenduz, baina Neoklasikoak dakartzan hiria egiteko balio berriak barneratuz. Balio hauek funtsezko aldaketa kualitatibo bat suposatu zuten hiriaren irudian. Era horretan, honelako eraikinak ateratzen dira: sarrerako sistema bertikala gordetzen da, longitudinala, tarte bakarrekoa, etxe gotikotik datorrena; konstante batzuk daude erlaitzaren altueran, 1848ko Ordenantzaren ondorio (11 oin beheko solairurako, 10 lehen solairurako, 9 bigarren solairurako eta 4 ganbararako; fatxaden balkoien kopuru eta kalitatea aurreikusten zen eta baita beraien erlaitzena, luzerak, hegadak eta distantziak, baita ere teilatu, “can” eta “alharaja” hegada)..

Azkenik, tipologi historiko guzti honen ondorioz, baina gunearen unitate morfologikoa guztiz hautsi gabe eta espermentatu daitekeen hiri-eredu berriaren euskarri bezala, “auzo-etxeak” deitutakoak aterako dira, eskailera zentral bat eta gutxienez solairuko bi bizitzako eskema ezberdin baten oinarrituak, arrazionaltasun zentzu nabarmen batekin eta esparruak ekonomizatuz eta hori antolatze gaitasun gutxienez bi lur-zati gotiko gehitzeko beharrezkin.

Eta mota hau izango da benetan atzeko aldeko patioa edo karkaba balio kolektibo bezala galtzea suposatuko duena, horren orde tipologi berri honen logika funtzionalari dagokion eraikinaren aireztatze edo argitze patio partikularra ekarriz.

Auzo-etxeak lur-zatiaren esparrua mazizatuz funtzionatzen du; fatxada da ez bakarrik eraikina definitzen duena, arau neoklasikoekin, baizik eta kalearen irudia ere eratzen du. Fatxada horren atzean mundu pribatu bat eta banaketa arazoak konpontzeko era berezi bat ezkutatzen da. Eman daitekeen amankomuneko irakurketa Ordenantza bitartez amankomuneko loturak dakartzana da, hau da, aipatutako altuerak eta gutxi gorabehera erdiko aldean dagoen patio bat, nora nahitaez eman behar du eskaileraren aireztatpena.

Nahitaezko profil edo ingurua, hegada mazizo eta azkeneko bi solairuetan atzera jotzearekin, “hiri-zabalgune” erara, non altuera kalearen zabaleraren arabera zioan 1926 urteko Ordenantzaren aplikazioa, alde zaharraren itxuraren aldaketa larri bat suposatu izan duen aurrekari bat izan da. Alde batetik, beraren aplikazioa dela eta egindako eraikin berrietan, mota eta neurriei dagokionez, beragandik arrotz zen eraikuntza morfologi bat sartzen zuelako. Beste alde batetik, bere aplikazioak altxatze, fatxada-eraberritze edo baita ere, alde aurretik zegoen eraikinetan begiratoki mazizo solteak egitea ekarri zuelako, alde zaharraren irudi izatera ere pasatu direnak.

Mende horretan sortutako eraikinen, alde aurretik zeuden eraikinetan egindako altxatzen eta jatorrizko tipoa nahiko gune zabaletan oraindik egotearen ondorioz dagoen homogeneitate falta okupazioan alde zahar honen ezaugarri nagusietako bat da.

Analisi honen azken ondorio bezala, 2001eko Plan Berezian ondokoak zuzentzea proposatzen zen:

- a) Barneko patio eta karkaben neurrigabeko erabilera.
- b) Arrotzak zaizkion eraikuntza motak ezartzea.
- c) Etxebizitza erabileraren ahalmenaren infraerabilera, eraikinen bertan behera uzteak areagotua (konpetibitate galeragatik).
- d) Berreskuratzea, ahal den neurrian, alde zaharraren irudia, larriki kaltetuta zegoena alde zurretik zeuden eraikinetan egindako eskuartze ez aiposez.

2001eko Plan Bereziaren aplikazioak ordenantza bat izan du emaitza bezala, eraikitako ondarearen berreskuratzea ahalbideratu duena. Bete dira ere bere aurreikuspenak ekipamendu zuzkidurari dagokionez, gauzatuak batez ere Josefendarrena izandako eremuan. Etxebizitza dagokionez, eraberritze eta birgaitze ekintza ugari izan dira. Hauetan zeresan handia izan du Beruala birgaitze sozietate publikoaren kudeatzeko ahalmenak. Azpiegitura sarea ere osatu egin da berrurbanizatzeko zenbait ekintzaren egikaritzaren bitartez.

Horrek finkapen maila altua duen hiri-eredu bat eratu du, trinkoa eta dentsitate altukoa, alde zaharretan den bezala. Hori dela eta, planteatzen diren ekintza berriak nahitaez doitu beharko dira eskala eta bideragarritasun ekonomikoko printzipioetara.

## 2.- Indarrean dagoen plangintza.

Esan den bezala hasierako puntuetan, indarrean dagoen Bermoko Alde Zaharreko Plan Berezia. Aurreko puntuetan esan den bezala, martxoaren 26ko 233/2001 Hirigintza Saileko Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko. Bere araudia Bere araudia 2001eko irailaren 27ko 186. zk. BAOean argitaratu zen, era horretan indarrean sartuz. Plan Berezia honek ea hamarkada bateko indarraldia izan zuen uztailaren 10eko 1331/1991 Foru Agindu bidez onartutako beste bat ordezkatzeko zuten.

Bere osteko Plan Orokorraren behin betiko onarpena eta indarrean sartzeak (2012ko irailaren 20ko osoko bilkura) Plan Bereziaren eremuari dagozkion zehaztapenen analisia eta azterketa behar du, bere mugaketa Monumentu Multzoaren mugaketaren ezberdina baita. Bere 6.2.1. A.0. (Zero area) Lurralde Arearako Xedapenak artikuluan islatzen da. Hala ere, HAPOeko hirigintzako araudiak xedapen ugari jasotzen ditu alde zaharrean direnak aplikagarri. Horrela, adibidez, 2. Kapituluko 3. SEKZIOA (E-1 ALDE ZAHARREKO EGOITZA ERABILERA DUTEN ZONEN ERABILERA ERREGIMENA), 3.2.13 eta hurrengoko artikuluek, zenbait eraikuntza eta erabilera parametro xehatu jasotzen dituzte. Honek eragiten dio, neurri batean, gaur egungo Plan Bereziaren ordenantza dokumentuari.

## 3.- Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua.

Aurrerakinarekin batera ingurumen dokumentu estrategiko bat zihuan, era horretan Bermeoko alde zaharra babestu eta mantentzeko Plan Bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko, ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean jasotzen den bezala.

Dokumentu honen edukia 21/2013 Legearen 29. artikulua ezarritakora egokitzen zen:

- a) *Plangintzaren helburuak*
- b) *Proposatutako berrikuspenaren norainokoa eta edukia*
- c) *Berrikuspenaren balizko garapena*
- d) *Berrikuspenaren garapen aurretik ingurumenaren egoeraren deskribapena*
- e) *Aurreikus daitezkeen ingurumen eraginak, eta egon ezker, beraien zenbaketa*

- f) *Aplikagarri diren arloko eta lurralde planekiko espero daitezkeen eraginak*
- g) *Ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatu prozedura aplikatzearen arrazoia*
- h) *Aztertutako hautabideak aukeratzeko arrazoen laburpena*
- i) *Aldaketa aplikatzeak ingurumenean izan dezaken edozein eragin ezkor nabarmen prebenitu, gutxitu eta, ahal den neurrian, zuzentzeko aurreikusitako neurriak, kontutan hartuz klimaren aldaketa*
- j) *Planaren ingurumeneko jarraipenerako aurreikusitako neurrien deskribapena*

Dokumentu honek ukitutako herri-administrazioei eta pertsona interesatuei kontsultak egiteko balio izan zuen. Kontsulta hauen ondoren, ingurumen organoak (Eusko Jaurlaritzak) 2018ko urriaren 3ko Ingurumen Administrazioako Zuzendariaren ebazpena eman zuen, Bermeoko Alde Zaharreko babes eta mantentzerako Plan Bereziaren berrikuspenaren ingurumen txosten estrategikoa ematen zuena.

Ingurumen txosten estrategikoak, hasteko, Planaren deskribapen bat egiten zuen, proposatzen zituen helburu eta ekintzekin, eta ondoren zenbait ingurumen irizpide ezartzen zituen. Ez zuen orokorrean eragin esanguratsurik ikusten ingurumenarekiko. Azkenik, zuzentze eta babes neurri batzuk azaltzen zituen ikuspegi hauei dagokionez: lur eta soberakinen kudeaketa, hondakinen ekoizpen eta kudeaketa, hondeatutako lurren kontrola, aire kalitatearen eta kalitate akustikoaren babesa, eraikuntza eta eraikitze jasangarria eta kultura ondarearen babesa.

## 10. RESULTADO DE LAS CONSULTAS PREVIAS REALIZADAS.

2017ko ekainean Bermeoko Udalak eskatu zien informazioa Eusko Jaurlaritzan eta Bizkaiko Foru Aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta natur guneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta natur guneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta etorkizuneko Plan Bereziaren antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko.

Ondoko erakundeek txostenak jaso ziren:

### **Bizkaiko Foru Aldundia**

Lurraldearen kohesioa sustatzeko zuzendaritza nagusia  
Ingurugiro Zuzendaritza Nagusia – Ingurumen eragin ebaluazio atala  
Ingurugiro Zuzendaritza Nagusia – Biodibertsitate eta Paisaia atala  
Kultura Ondarearen Zerbitzua

### **Eusko Jaurlaritza**

Larrialdiei aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza  
Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza

### **Beste Erakunde batzuk**

Euskal Herriko Itsasertz Mugartea  
Telekomunikazio Sare eta Operadoreen Azpi-zuzendaritza Orokorra  
Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia  
URA Euskal Uraren Agentzia

## 1.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

### **Lurralde Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren Txostena. Lurralde Antolamendu Atala**

8117 sarrera; 2017ko uztailaren 8.

Gernika-Markinako EEko LZPetik datozen plangintzarako afekzioak adierazten ditu, beraien artean nabarmenduz paisaiari dagozkionak (Plan Bereziaren araudian sartzea "Paisaia-integratzaileko azterlanak", obra proiektuekin batera), eta, hala badagokio, Ingurumen Ebaluazio Estrategiko prozedura jarraitzea.

### **Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren txostena. Ingurumen Ebaluazio Atala**

8620 sarrera; 2017ko uztailaren 24.

Txostenak esan eta adierazten ditu Bermeoko alde zaharraren Plan Berezia idazterakoan kontutan hartu beharreko ingurumen baldintzapenak.

Hasiera batean, ugari eta xehatu aipatzen du ingurumen arloan erreferentziakoa den legedia. Ondoren, ingurumen arloan Planak hartu behar dituen helburuak zehazten ditu.

Horren ondoren, Plan Orokorra jarraitu beharko dituen ingurumeneko irizpidez ari da, xehetasunez eta gaiak zehaztuz.

Azkenik, txostenak ingurumen intereseko baliabide eta eremuen zerrenda bat egiten du. Ez da xehetasunetan sartzeko Alde Zaharrari dagokionez (eta hain zuzen, eremu zehatz honi buruz eskatu zen txostena) eta, ordea, udalerrira osoa eta bere eskualdea aipatzen ditu.

### **Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren txostena. Biodibertsitate eta Paisaia Atala**

8906 sarrera; 2017ko abuztuaren 2.

Ekimena Urdaibai Biosfera Erreserba barruan dagoela dio (ez du esaten ordea, hirigintza plangintza bidez antolatu beharreko gunean kokatzen dela) eta eremuan espezie mehatxatu bakar bezala adierazten ditu "etxeetan euskal herriko kiroptero mehatxatuak egon daitezkeela" eta beraz, Plan Bereziak beraien kontserbatzean eragin izan dezaketen ekintzak arautu behar dituela, esateko, etxebizitzak birgaitu.

### **Kultura Ondare Zerbitzuaren txostena**

11317 sarrera; 2017ko urriaren 13.

Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen arabera kalifikatutako edo inbentariatutako ondasunen zerrenda dakar eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondare Zentroari kontsulta egitea gomendatzen du informazio gehiago lortzeko.

## **2.- EUSKO JAURLARITZA**

### **Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren txostena**

8340 sarrera; 2017ko uztailaren 14.

Bermeo udalerriko babes zibileko arriskuei buruzko informazioa dakar:

- Uholde arriskuei lotutakoak: arloko araudi eta planak aipatu ondoren, 100 eta 500 urteko itzuli-aldiko uholde orbanak identifikatzen ditu Landabaso eta Artika (Artigas) erreken ibai-ibilguetan; adierazten du ere eremuko prezipitazio isomaximoa 375 mm/egunekoa dela 500 urteko itzuli-aldirako eta, beraz, dreinadura obra guztientzat kontutan hartu beharko dela datu hau
- Lurrikara arriskua: IV-V intentsitate gunean kokatzen dela dio; hala ere, eraikuntza berrietan kontutan izango da irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretu bitartez onartutako lurrikaren aurkako Eraikuntza Araua: parte orokorra eta eraikuntza (NCSR-02).
- Baso-sute arriskua: Eusko Jaurlaritzaren arriskuei buruzko kartografia aipatzen du eta adierazten du kontutan hartu beharko direla Euskal Autonomi Erkidegoko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetan jasotako baldintzak Autobabes Planak egiteko beharrari dagokionez suteak izateko arrisku handiko eremuetan edo hiri edo baso interfazeko esparruetan, eta baita kanpatze instalazioei dagokiona, hurrenez hurren
- Teknologi-arriskuak: merkantzia arriskutsuen garraio-arriskuari dagokionez, adierazten du merkantzia arriskutsuak zeharkatu dezaketen bidea eskualdeko sareko BI-631 eta BI-2235 eskualde sareko errepideak direla eta EJK egindako arriskuen mapan 600 metroko lerro bat marraztu dela aztertutako azpiegituraren alde bietan. Hau izango litzateke esku-hartzerako gunea kontrako baldintzetan istripu bat egongo balitz, Materia Arriskutsuekin Istripien aurrean Esku-hartze Fitxen gomendioen arabera, eta komenigarritzat jotzen du komunikazio bideen aldaketetan kontutan hartzea larrialdi-ibilgailuen joan etorriak errazteko ekimenak. Seveso III araudiari dagokionez (sustantzia arriskutsuekin lotutako istripu larrien arriskua) ez da adierazten inolako araudi honen menpeko establezimendurik Bermeon.
- Beste arrisku batzuen atalean hiriko suteen arriskua aipatzen du. Nabarmentzat jotzen du hau, adieraziz plangintzan hura arintzeko neurriak hartzea kontutan hartu beharko dela. Aipatzen du ere itsasoak eragin dezaketen arriskua, esanez lanean ari direla bere identifikatze eta prebentzio neurriei dagokionez, eta kontutan hartu beharko dela ere.

Bukatzen du arrisku arloko araudia eta dokumentazioaren zerrenda bat eginez.

### **Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren txostena**

8940 sarrera; 2017ko abuztuaren 1.

Natura ondareari buruz informazioa lortzeko dauden baliabideei buruzko informazioa ematen du (ingurumen arloko oinarriko kartografia eta kartografia xehatua), webguneak aipatuz eta informazio geografikoko bisoreak.

### **3.- BESTE ERAKUNDE BATZUK**

#### **Euskal Herriko Itsasertz Mugartearen txostena**

7520 sarrera; 2017ko ekainaren 22.

Ez du informaziorik ematen dauden arrisku eta ingurumen baldintzapenei buruz.

876/2014 EDren 227 artikularen edukia transkribitzen du planaren tramitazioari dagokionez.

Esaten du bere memorian ondoko hau sartu beharko litzatekela (sic):

- *La utilización del dominio-público marítimo-terrestre se regulará según lo especificado en el Título III, de la Ley 28/1988, de Costas.*
- *Los usos en la zona de servidumbre de protección se ajustarán a lo dispuesto en los artículos 24 y 25 de la Ley de Costas, debiendo contar los usos permitidos en esta zona, con la autorización del Órgano competente de la Comunidad Autónoma, de conformidad con lo determinado en los artículos 49 y 50.1 del RD 876/2014, por el que se modifica parcialmente la Ley de Costas.*
- *Se deberá garantizar el respeto de las servidumbres de tránsito y acceso al mar establecidas en los artículos 27 y 28 de la Ley de Costas, respectivamente, y el cumplimiento de las condiciones señaladas en el art. 30 para la zona de influencia.*
- *Las obras e instalaciones existentes a la entrada en vigor de la Ley de Costas, situadas en zona de dominio público o de servidumbre, se regularán por lo especificado en la Disposición Transitoria Cuarta de la Ley de Costas.*

Aipatzen du ere Itsasertza arautzeko Legearen 30. artikulua ezarritakoa ILJPren babeserako eskakizunei dagokionez ondoko irizpideak jarraituz:

- Hondartza eta ibilgailuentzako sarrera duten tarteetan, aparkaleku erreserba nahiko gordetzea aurreikusi.
- Eraikinak ingurura egokitzeko beharra adierazi.

#### **Telekomunikazioen Sare eta Operadoreen Azpi-zuzendaritza Orokorraren txostena**

7996 sarrera; 2017ko uztailaren 5.

Esaten du, Plan Berezia prestatzeko lanak bukatu ondoren, hirigintzako dokumentua presta dagoenean (uler daiteke hasierako onarpenerako dokumentua dela) izango dela Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorraren 35.2 artikuluan aurreikusitako telekomunikazioen arloko beharrezko txostena eskatzeko une aproposa. Ondoren adierazten du ze formatutan nahi duen Plana bidaltzea.

Eranskin bat dator, telekomunikazioen legediari buruzko adierazpenekin, eta hain zuzen ere, ikuspegi hauei buruz:



- a) Operadoreen eskubidea jabari publiko edo jabetza pribatua okupatzeko eta aplikagarri den araudia.
- b) Partekatutako kokapena eta jabetza publiko eta pribatuaren kokapen partekatua.
- c) Herri administrazioek egindako araudia, komunikazio elektronikoen sare publikoen zabalkuntzari ukitzen diona.
- d) Udalaren lizentzia lortzearen beharra telekomunikazio azpiegituren instalazio, abian jartze edo funtzionamendurako.
- e) Komunikazio elektronikoen sare publikoak eratzen dituzten azpiegituren ezaugarriak hirigintza-plangintza tresnetan.
- f) Telekomunikazio azpiegiturak eraikin guztietan.
- g) Telekomunikazio elektronikoen sare publikoen zabalkuntzari eragiten dion edozein herri-administrazioaren araudiaren argitaratzea.

### **Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren txostena**

8600 sarrera ; 2017ko uztailaren 21.

Esaten du Bermeo ez dagoela inolako aireportu zortasunez ukitua eta, beraz, aurrerantzean ez dela beharrezkoa izango Bermeoko hirigintza planak erakunde horretara bidaltzea.

### **Euskal Uraren Agentzia - URA**

8911 sarrera; 2017ko abuztuaren 2.

Agentziaren bisorean eta bere webguneko FTPn eskuragarri dagoen informazioa kontsultatzea gomendatzen dute, esanez arriskuren bat ikusiko balitzateke, berriz kontsultatzeko bere erakundeari, berak Plana era xehatuan aztertzeke.

## 11. AURRERAKINAREN PARTE-HARTZE ETA JENDAURREKO ERAKUSTALDIAREN EMAITZA.

Bermeoko gune historikoaren Plan Bereziaren berrikuspenaren Aurrerakina 2018ko otsailaren 6an aurkeztu zen komunikabideen aurrean, eta 2018ko otsailaren 8ko 28 zk. BAOean argitaratutako iragarki bidez jarri zen jendaurrean bi hilabetez pertsona interesatuek aztertu ahal izateko eta komenigarritzat jotzen zituzten iradokizun edo proposamenak egiteko. Otsailaren 15ean Aurrerakinaren aurkezpen publiko bat egin zen, Kultura Etxean egindako saio ireki baten.

Aurrerakina, bere laburpen exekutiboa eta idazketa prozeduran eratutako dokumentazio osagarriarekin batera, jendearentzat eskuragarri jarri zen udal webgunean ([http://www.bermeo.eus/plan\\_berezia.html](http://www.bermeo.eus/plan_berezia.html)), hasierako orrialdean zegoen banner baten bidez sartuz.

Jendaurreko erakustaldia ukitutako administrazioei eta beste interesatu batzuei jakinarazi zen. Ondoko idatzi eta txostenak jaso ziren:

Erregistroa	Egilea	Data
MAIL BER	D.U.	2018/02/19
	B.A.	2018/03/19
3416 UDA	G.Z.G. (A.A.)	2018/03/22
3433 UDA	M.J.B.E.	2018/03/22
	ITSASERTZ MUGAKETA / DEMARCACIÓN DE COSTAS	2018/03/27
83 BER	"SAN PEDRO" ARRANTZALEEN KOFRADIA	2018/04/05
3944 UDA	I.B.Z.	2018/04/09
MAIL BER	E.A.U.	2018/04/09
4187 UDA	DIRECCIÓN GENERAL DE TELECOMUNICACIONES	2018/04/13
	X.P.A.	018/04/16
4599 UDA	DIRECCIÓN GENERAL DE AVIACIÓN CIVIL	2018/04/24
4748 UDA	EUSKAL UR AGENTZIA - URA	2018/04/27
4823 UDA	LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA	2018/04/30
MAIL BER	J.O.T.	2018/05/03
MAIL BER	A.U.G.	2018/05/14
5533 UDA	EUSKAL TRENBIDE SAREA	2018/05/15

Beraien edukiak izaera ezberdinekoak ziren. Bazeuden eredu orokorrari (ekonomi-jarduerak, etxebizitza, ekipamendu, azpiegitura eta komunikazio sistema, etabar) egindakoak eta baita norbanako interesak (erabilera aldaketak, etabar) aipatzen zituztenak.

Erredaktore-taldeak txosten bat egin zuen banakako erantzuna emanez. Erantzun hauek bere egileei jakinarazi zitzaizkien.

## 12. HASIERAKO ONARPENERAKO DOKUMENTUARI BURUZKO ALDEZ-AURREKO TXOSTENAK.

Hasierako onarpenerako alde-zurreko dokumentua zenbait erakundera bidali zen, eta ondoko txosten hauek jaso ziren.

### **Euskal Uraren Agentzia - URA**

4748 sarrera; 2018ko apirilaren 27.

1.- Jabari publiko hidraulikoa eta horri lotutako babes-eremuak babesteari dagokionez:

Plan Berezian jasotako jarduketetako batzuk Artika ibaiaren eta Landabaso errearen Jabari Publiko Hidraulikoko Polizia Eremuan koka daitezke: Eskinarruga kalea oinezkoentzat jartzea eta berriro zolatzea, eta saneamendu-sare orokorra hobetzea. Ondorioz, gogorarazten da jabari publiko hidraulikoari eragiten dion edo haren babes-eremuetan kokatzen den jarduketa orok Uraren Euskal Agentziaren nahitaezko administrazio-baimena beharko duela.

2.- Itsas-lehorreko jabari publikoa eta horri lotutako babes-eremuak babesteari dagokionez:

Bertan dagoen erabilera anitzeko eraikina ezartzeari dagokionez, Itsas-lehorreko Jabari Publikoan Kostaldeein buruzko araudian xedatutakoa beteko da.

3.- Uholde arriskuari dagokionez:

Alde Zaharraren hego-mendebaldean 500 urteko errepikatze-denborako uholdeak eragiten du. Uholde-arriskuak eragindako eremuetan planteatzen diren jarduketek bete egin beharko dituzte Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren 40.4 artikuluan (urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretua) uholde-arriskuko eremuan ezarritako erabilera-mugak.

4.- Hornidurari dagokionez:

Plan Bereziaren zehaztapenek ez dakarte baliabide-premia esanguratsurik, eta, beraz, ez da egokia Uraren Euskal Agentzia honek baliabide horiek dauden ala ez erabakitzea.

5.- Saneamenduari dagokionez:

Positiboki baloratzen da Plan Bereziak saneamendu-sare orokorra hobetzea eta sistema bereizleekin ordezkatzeari.

### **Euskal Herriko Itsasertz Mugartearen txostena**

\_\_\_\_\_ sarrera; 2018ko martxoa 27.

Prozedurako gaiez gain, honako hau adierazi du:

Dagozkien planoetan, itsasertzeko lerroak, itsas-lehorreko jabari publikoaren mugaketakoak, babes-zortasunekoak, igarobide-zortasunekoak, eragin-eremukoak eta itsasorako sarbide-zortasunekoak adierazi beharko dira, Kostaldeein buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean xedatutakoaren arabera zehaztuta.

## ANTOLAKETAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

---

### PLANGINTZAREN IRIZPIDE ETA HELBURUAK

#### 1.- Irizpideak.

##### 1.1.- Irizpide orientatzaile orokorrak.

###### Garapen eramangarria.

Plan Bereziaren antolamenduak hiri-garapenerako printzipio hauek hartu behar ditu irizpide eta jarraibide:

- a) Ingurumen eramangarritasuna: hiri-sistemetan energia berriztagarriak erabili eta aprobetxatzea, energia-efizientzia lortzea, hondakinen sorrera gutxitzea eta baliabide naturalak aurrezteko sustatu.
- b) Lurzoruak dituen baliabide naturalak babestu.
- c) Lurzoruaren okupazio eramangarria. gune urbanoak barreiatu eta sakabanatzeko joera baztertu.
- d) Eraikitze eramangarria: lehenetsuna eman herriko jatorrizko guneetan eraikita eta urbanizatuta dagoen ondarea berronertzeari eta hutsik dauden etxebizitzak erabiltzeari.
- e) Mugitzeko modu eramangarria: behar-beharrezko ez den guztietan, murriztu motordun ibilgailuen erabilera, eta garraio publikoa eta mugikortasun alternatiboa sustatu.

###### Interes publikoaren nagusitasuna.

Hirigintza-antolamendurako ahalean jarduteko beharrezko informazioa hartuko da hizpide, interes guztiak arrazoiz haztatuz, eta era oinarritu eta neurrizkoan.

Hirigintza-antolamenduak bermatu beharreko interes publikoa honetan zehazten da bereziki:

- Pertsona orok duina eta bere beharretarako egokia den etxebizitza bat eskuratzeko, garapen ekonomiko orekatu baterako, hiri eta natura ingurumen batez gozatzeko eta kultura-ondarea osatzen duten ondasunez gozatzeko duen eskubidea.
- Erkidegoak hirigintzako ekintzak sortutako gainbalioetan parte hartzeko duen eskubidea.
- Hirigintza-planetan kalitateaz, kopuruez eta egikaritze-epenez ezarrita dauden aurreikuspenak betetzen direla ikuskatzeko eta, beren eskumenen barruan, lurzuaren eta etxebizitzaren espekulazioa saihesteko herri-administrazioek duten eginbeharra; horretarako, lurzuaren merkatuan eta ondasun higiezin merkatuan esku hartzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte.

###### Hirigintza plangintzaren eskumena.

Hirigintzaren antolamenduak bakarrik lotu dezake lurzoru helburu eta erabilera jakin batzuekin, hirigintza sailkapen eta kalifikazioaren bitartez, beti ere lurralde-antolamenduko tresnetan xedatutakoaren kalterik gabe.

###### Hirigintza antolamenduaren koherentzia.

Hirigintzaren antolamenduak berezkoa duen eraginkortasuna bakarra da, eta halaxe hedatuko da arlo guztietara. Hirigintza-antolamendua interpretatu eta aplikatzeko egintza

oro plangintza horren koherentziarekin eta eraginkortasunarekin bat gehien datorren eran egin behar da, plangintzak berezkoa duen legezko eginkizunarekin bat etorritz.

#### *Herritarren parte hartzearen printzipioa.*

Plan Berezia pertsona fisiko eta juridikoen era guztietako parte-hartzea bultzatuz eta erraztuz tramitatu, onartu eta egikaritu da.

Hiritarrek ondoko eskubideak izango dituzte:

- a) Interesatu gisa agertu, horretarako legitimazio berezirik egiaztatu beharrik gabe.
- b) Herri-administrazio eskudunen artxiboetan dauden agiriak ikusi eta haien kopia eskuratu ahal izateko eskubidea, kasuan kasuko herri-administrazioak erabakitako eran eta legetan oro har ezarritako mugekin ez besterekin.
- c) Legitimazio berezirik behar izan gabe, bidezko diren akzioak erabili ahal izatea, hala administrazio-bidean nola auzi-bidean, herri-administrazioei nahiz subjektu pribatuei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten exijitzeko.

### **1.2.- Antolaketa irizpide kuantitatiboak: sistemaren proiektioak.**

#### *Etxebizitza behar orokorrak.*

Sistemaren proiektio bat planteatzerakoan, uste da ezin dela bizitegirako hazkundeei buruzko aurreikuspenik egin, antolatu beharreko eremua erabat finkatua baitago. Etxebizitza politikak birgaitze, eraberritze eta berriztatzearen eskutik etorriko dira, ez garapen berrien bitartez.

#### *Etxebizitza babestuaren beharrak.*

Erredaktore taldeak ez du uste etxebizitza babestuko eskaera oso handia dagoenik alde zaharrean, baina bai antzeman dela etxebizitza eskuragarri eta erakargarrien eskaintza bat sustatu edo erraztearen aldeko joera bat.

Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 82. artikulua babes publikoko araubideren bati lotutako lurzoru gordetzeko betebeharra ezartzen du 3.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrientzat. Hau da Bermeoren kasua. Baina betebehara hau nabarmendu egin behar da HAPOean izaera orokorrez aurreikusitakoa eta garapeneko araudiak (hirigintzako estandarrei buruzko 123/2012 Dekretua) ezarritakoarekin, alde zaharrean eraikin gabe geratzen diren orubeetan egin daitezkeen jarduketaren tamaina txikia dela eta.

#### *Jarduera-ekonomikoen beharrak.*

Planaren erredaktore taldeak uste du garapen ekonomikoa, datozen urteetan alde zahararentzat zerbitzu sektorearen eskaintza orekatua baten oinarritu behar dela. Planean jasotako antolaketa ahal den neurrian helburu hau lortzen lagundu behar du.

### **1.3.- Antolaketa irizpide kualitatiboak: okupazio-eredua eta hautabideak.**

Helburuak sistemaren proiektioaren bitartez zenbatu ondoren, atal honetan egiteko geratzen dena kualitatiboki, eta batez ere espazialki, helburu horiek kokatzea da. Hazkunderako joerak eta aurreko baldintzapen horiek aplikatzeko balizko hobekuntza guneak analizatu behar dira. Azken finean, garapenerako irizpideak eta estrategiak aztertu, beti ere, kontutan izanez alde zahararen finkapen maila altua, tamainako jarduketak egiteko aukera gutxi uzten dituen.

## 2.- Helburuak.

### 2.1.- Helburuei buruzko sarrera.

Estrategia orokor bezala ikuspegi sozio-ekonomikoan helburuak biztanle kopurua mantentzea eta handitzea eta merkataritza txikia eta zerbitzu profesionalei lotutako ekonomia jarduera berpiztea dira.

Ikuspegi tekniko hutsetik, Plan Berezi berriaren helburuek, gutxienez, eginkizun bikoitza dute. Alde batetik, plan berriak proposatutako hiri-ereduaren parametro zehatzaileak izatea. Beste alde batetik, detektatu diren hirigintza izaerako egungo eta etorkizuneko arazo eta beharrei erantzuna emateko tresna izatea.

Horrela, helburuen gauzatzea ondokoekin zuzenean lotuta dago:

- *Goi mailako plangintza eta xedapenen zehaztasunak.*
- *Udalak berak jarraitutako estrategia eta politikak.*
- *Hiritarren eta erakunde publiko eta pribatuena, enpresa eta gainerakoena eskaerak, parte-hartze publiko prozeduraren bitartez bideratuak kontsulta, saio ireki, elkarrizketa, alegazio eta iradokizun izapideetan.*
- *Plan Bereziaren Aurrerakin fasean egindako azterketa, analisi eta diagnosien ondorioak.*

Planaren helburuak lurralde eremu ezberdinei egiten die eragin:

- *Udalerriko gune ezberdinek, beraien hiri-jerarkiaren arabera, beraien arazo eta xehetasun ezberdinentzat eman beharreko arreta eskatzen dute, dagoen hiri-zati bakoitza era berezian aztertuz.*

Bestalde, Plan Bereziak erantzun behar dio ere guneko arazo sortari, bere osotasunean hartuta: ingurumen naturala, etxebizitza, jarduera ekonomikoak, komunikabide sistema, gune libreak eta ekipamendua, azpiegiturak, eta abar.

Hirugarren eremua udalerrri gaineko testuingurura zuzentzen da, eta hain zuzen, alde zaharra kokatzen den hiri-sistemara; hau udalerrri mailan duen paperrean zehaztu behar da.

Esku-hartzeak ulertu behar dira ere garapen iraunkorraren ideia baldintzatuak; adierazitako lerroarekin jarraituz, hau osatzen dute, beste batzuen artean, indarreko legedian azaldutako printzipioek.

### 2.2.- Helburu orokorrak.

Hau kontutan hartuta, berrikuspen lana mugatzen duten izaera orokorreko helburuak ondoko hauek dira:

- Ondare ingurumena gunearen elementu egituratzaile bezala hartzea. Horretarako, bere ingurumen, paisaia, nekazaritza, lurralde eta gainerako balio xehatuak direla eta gorde behar diren eremu eta elementuak identifikatu eta helburu horretarako beharrezkoak diren neurriak zehazteaz gain, ingurumen horren osotasuna tratatzeko parametroak zehaztuko dira, era horretan behar den bezala bermatu ahal izateko bere balio orokorren gordetzea, eta baita gutxitzeko ahal den neurrian gizakiaren jarduerak eragiten dituen inpaktuak. Antolaketa ondoko premisetan oinarrituko da:
  - *Hiri-garapenak gaur egungo hiriaren ehun barruan egiteari lehentasuna eman, erremate, osagarri, akabera eta abar behar duten bere aldeetan jardunez batez ere. Irizpide honek justifikatzen du, adibidez, hiri-eraberritze eta birgaitze jarduketan diskriminazio positiboa, oinarritzen bada beti ere jada existitzen den ondare arkitektonikoaren berreskuratze eta balioan jartzearen sustapen erreal eta eraginkor baten.*

- *Hiri-kalitatea, bai formari dagokionez, bai funtzioari. Lehenengoari dagokionez, zarata kutsadura gutxitzea edo kentzea, baliabide energetiko edo hidrikoak erabiltzea eta disfrutatzea zentzunez egitea, eta abar. Guztia baldintzatuz kalitatezko hirigintza antolaketa batera hiria diseinatzerakoan. Bigarrenari dagokionez, ahal den neurrian bateragarri diren jardueren elkarbizitza sustatzea (etxebizitzak-jarduera ekonomikoak-zuzkidurak).*
- *Hirigunean gaur egun dauden dentsitateen antzekoekin lan egiteko suposatzen duen hiriaren jarraitasuna eta eraikitako ehunaren trinkotasuna, beti ere, errealitatea ikusita komenigarritzat jo daitezkeen salbuespenen kalterik gabe.*
- *Lurzoruaren kontsumoa arrazionalizatu.*
- *Hiri-garapenaren mugaketa.*
- *Orografia errespetatu, lur-erazketa handiak eta gaur egungo topografia erabat aldatzea suposatzen duten ekimenak saihestuz.*
- Hau bezalako herri batentzat egokiak diren ekipamendu eta gune libreak aurreikustea, bai egiturazko izaerakoak bai xehatuak. Era berean, ekipamendu arloko aurreikuspenak, planteatutako hiri-garapen estrategia orokorrera egokitzen direnaldi berean, helburu xehatuak lortu nahi dituzte, izaera estrategikokoak ere.
- Jarduera ekonomikoa mantendu eta sustatu. Planaren erredaktore taldeak uste du alde zaharraren garapen ekonomikoa zerbitzu sektorearen eskaintza orekatu batean oinarritu behar dela.
- Bide sare orokorra eta kokapen nagusiaren konektibitatea hobetu daudenen alternatiboak izan daitezkeen bideen egikaritza aztertuz.
- Etxebizitza arloan uste diren beharrei erantzuna eman. Biztanleriaren dinamika aurreko ataletan aztertu da, baina aurreratu daiteke dokumentu hau sinatzen duen lantaldeak hazkunde baxua nahiago duela, edonola ere erremate edo baliabideak lortzera zuzendua.
- Kultura intereseko ondasun eta elementuak gorde, eta helburu hori lortzeko proposak diren neurriak zehaztu.
- Hiri-zerbitzuen arloan dauden beharrei erantzuna eman (ura, saneamendua energia elektrikoa, gasa, telekomunikazioak, hondakinen bilketa, eta abar).

### **2.3.- Planaren garapen eta kudeaketa helburuak.**

Ondokoak zehazten dira:

- *Argi zehaztea esparru publiko eta pribatuaren arteko banaketa, era horretan argi uzteko lurzoruaren jabetza araubide juridikotik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak.*
- *Planaren bideragarritasun programatiko eta ekonomikoa.*
- *Planaren ingurumen bideragarritasuna.*
- *Planaren kudeaketa egingarria.*

### **2.4.- Koordinazio-helburuak.**

Ondokoak zehazten dira:

- *Plan berezia eta bere proposamenak indarreko lurralde antolamendu tresna ezberdinetan jasotako aurreikuspenetan integratzea. Honek suposatzen du, beste gauza batzuen artean, proposamen horrek egokitzea, gutxienez, tresna horietan jasotako aurreikuspen lotesleei.*
- *Eragile, administrazio eta gizarte eragile ezberdinekin koordinazioa bultzatzea.*

## PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

### 1.- Deskribapen orokorra eta balizko hautabideak.

#### 1.1.- Sarrera.

Aurrerago ere esan denez, 2001eko martxoaren 26ko Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko Bermeoko Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia, Monumentu Multzoa izendapena eman zuen abenduaren 22ko 396/1998 Eusko Jaurilaritza Dekretuaren neurria egokitzeke. Dokumentu horretan, helburu nagusia zen Birgaitzeko Plan Berezia alde zaharra Monumentu Multzo bezala aitortzen zuen 396/1998 Dekretura egokitzea zen. Lan honek balio izan zuen alde zaharraren eta bere elementuen morfologia kontrolatzeko, era xehatuan jasoz fitxen bitartez eraikin baten egoera, berari zegokion babespen mailarekin (eta, hala balitz, bere diskordantziekin ere) batera.

Honen emaitza bezala, alde zaharraren hobekuntza urte hauen zehar eremuaren estetikan zentratutako araudi baten bitartez egin da, bere jatorrizko ezaugarrietan oinarritutako irakurketa bat eta egin beharreko arkitektura esku-hartzeen kontrola ziurtatuz, bere idiosinkrasia gordez bera desitxuratu gabe.

Begirada azkar batek erakusten du esandako helburuak apurka apurka bete egin direla. Hiri-bilbeak finkatu dira eta hiri ehunen zati handi bat birgaitu egin da (ekipamendu publikoak). Hala ere, eraikin gabeko kopuru nabarmen bat egon badago.

Alde zaharra, beraz, eraldatze prozedura mantso baten barruan dago, arautua jada, zenbait ikuspegitan.

Hori dela eta, dokumentu honen xedea lan horrekin jarraitzea da, aurreko Planean ezarritakoa aztertuz eta egokituz, baina beste pausu bat eman ez alde zaharraren funtzionamendu egokian eragin ezkorra izan dezaketen zeharkako gaiei dagokionez, beraiei erantzunez helburuak lortzeko beharrezko arau-aldaketa eta egoeren desblokeatzearen bitartez, eta, horrez gain, finkatutako helburu berrien lorpen edo hobekuntzarako jarduketa positibo batzuk gauzatuz.

Zeharkako gai horiek dira, beste batzuen artean, irisgarritasuna, genero ikuspegia, mugikortasuna, osasuna eta araudiaren malgutzeta.

Indarreko Planak arreta jartzen bazion gehien bat eraikitako ehunaren kanpoko itxurari eta antolaketa hutsari, berrikuspen honetan arreta eraikitako ehunean jarri behar da.

Gogoratu behar dugu ere, 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa, aurreko Plana eta gero ateratakoa, eraikin bakoitzaren fitxan jaso behar diren eraikuntza, bizigarritasun, irisgarritasun eta segurtasun ikuspegiak arautzen dituena.

Berrikuspena aukera ezin hobea da ere existitzen den ehuna birgaitzeko eta, denbora eta diruaren ikuspegitik, alde zaharra birgaitu eta suspertzeko helburu eta estrategia bideragarriak asmatzeko. Birgaitzea bultzatu jasotako datuen oinarritutako neurriekin (hauek digitalizatuz, era horretan kudeaketa erabat errazteko). Horretarako, helburu nagusi izango dira:

- Egiturako, eraikitze eta segurtasun baldintzen egokitzapena.
- Bizigarritasun baldintzen hobekuntza.
- Irisgarritasunerako baldintza egokiak lortzea.
- Programa edo banaketa dela eta etxebizitzaren mugaketa funtzionalak gainditzea.



Helburu hauei dagokionez, beharrezkoa dirudi Planak bere araudian hartzea parametro sorta batzuk jarduketa batzuk beste batzuekiko lehentasuna izateko, baina malgutasun baten barruan, proposatzen den jarduketaren baldintza eta egoerara egokitu ahal izateko.

Esandakoagatik, Planaren helburu berriak eraikinen barruan islatu behar dira (bai etxebizitzetan, bai lokaletan), eta baita kale eta esparru publikoen dinamikan, alde zaharraren bizitasuna hobetzeko baliatuz.

Azken honi dagokionez, kezkatzekoa da merkataritza jarduera eta etxeen okupazio maila alde zaharrear. Ikuspegi hauek landu egin beharko lirateke, alde zaharraren ahalmen turistikoarekin eta garraio publikoarekin herri arteko bere lotura onari lotuz.

### **1.2.- Kontutan izan diren hautabideak.**

Planteatzen diren proposamenen artean (“O.8\_PROPOSAMENAK” planoan islatzen direnak) bi bereziki planteatzen dira alde zaharraren osaketa eta funtzionamendu egokira bideratuak.

Gaur egun, kota diferentzia erraldoi bat dago alde zaharreko etxeak eta Bermeoko portuaren artean eta horrek irisgarritasun arazo larriak dakartza eta haustura handi bat hiri-ehunean.

Alde batetik, alde zaharra norabide transbertsalean hiri-bilbearen gainerakoarekin lotzeko, maldaren alde, Etxeberria tar Kresentzia Kalea eta Eskinarruaga Kalea oinezkoentzat bihurtzea proposatzen da, zoladura altxatuz dauden espaloien maila hartu arte, era horretan elkarbizitza esparruak eratzeko eta intuitiboki bideratzeko oinezkoen zirkulazio fluxua Lamera parkerantz, azken hau baita bizitza gehien daukan esparrua (eeta alderantziz, goranzko norabidean, Lamera Arana Goiri tar Sabin enparantzarekin eta Arresi Kaleko harresien ate zaharrenekin lotuz).

Gainerako jarduketa nagusiak loturak norabide transbertsalean eta ipar-ekialdeko egonaldiak hobetzera doaz.

Bilbearen mutur hau, batez ere bere azken tartean, Bastarre Kalea eta Landatxuko Eskailerak Kalerantz, benetako zaku-hondo bat bilakatzea bideratua dagoela dirudi, bizitegi izaera soilekoa eta gainerakoa baino etorrera gutxiagorekin (puntu beltzak ahalbideratuz). Bastarreko begiratokia, bera bakarrik, ez da nahiko erakargarri, Talaren hurbiltasuna dela eta.

Proposatzen da beraz, puntu honetarako eta Bermeoko Portuko Plan Berezian aurreikusitakoa neurri batean jarraituz, erakarpen polo bat: sarrera bikoitzeko eta estalki erabilgarriko eraikin bat, alde batetik irisgarritasun irizpideekin gune bat eta bestearen arteko kota diferentzia gainditzeko eta, bestetik, guneari erakargarritasuna emateko.

Baita ere, Tala inguruan, dauden ekipamenduetatik hurbil (anbulategia, psikiatrikoa, kontserbategia, Kultur Etxea, Fontan Lobe Bizealmirantea BHI) gune bat garbitzea proposatzen da, psikiatrikoaren itxiera-horma kenduz ambulategiko hormarekin lotzen duen gune arte (Arresi Kaleko bihurtzean), eta Ongintza Kalea eta Arresi Kalea oinezko bihurtuz Tonpoi Kaleko bidegurutzetik. Era honetan, gaur egun inguruan daudenak baino azalera lauagoko egoteko esparru bat lortuko litzateke, egunero gunera doazen erabiltzaile ugariantzat zerbitzua emateko, zeren hiri-elementuen kopuru handiak eta eguzkia etengabe ez egoteak bi arrazoi ezkor diren gaur egun gunean dauden esparru publikoen erabilera eskasa eragiten dutenak.

Alde batera utzi da aparkalekura sartzeko Arresi kalean kokatutako harresi zaharren atetik, funtzionaltasun eta kultura ondare babeseko arrazoiengatik, eta gaur egungo bide-eskema mantendu da.

Gainera, lotura transbertsala hobetzeko proposatutakoaren ildora, proposatzen da ere, lehen bezala oinezko bihurtzea Intxausti kalea eta Nardiz Tar Jon Kalea, zoladura altxatuz dauden espaloien maila hartu arte, era horretan elkarbitza esparruak eratzeko eta kale bi hauen oinezkoen zirkulazio fluxua hobetzeko, komertzialenak baitira, Arana Goiri Tar Sabiñen enparantza eta alde zaharraren ekialderantz.

Hautatutako konponbideak "O.4\_KALIFIKAZIO XEHATUA" planoan islatzen dira ere.

## **2.- Justifikazioa goi-mailako plangintzaren ikuspegitik.**

Proposatutako hautabideak LZP eta LAPen zehaztaperentara lotzen dira, hiri-lurzoru finkatuan antolaketa xehatuko tokiko jarduketetara lotzen baitira. Bateragarri dira ere Bermeoko HAPOk jasotako esparru arautzailearekin. Portuarekin lotzeko proposamena bere Plan Berezian islatu beharko da.

## **3.- Proposatutako bizitegi ereduaren justifikazioa:**

### **3.1.- Hiri-lurzoru finkatua.**

Proposatutako ekintzak finkatutako ehuna hobetzeko asmoa dute, ordenantzak gaur egungo araudi eta egoerara egokituz.

### **3.2.- Finkatu gabeko hiri-lurzorua.**

Proposatutako ereduak ahalbideratzen du eraiki gabeko orubeetan edo antolaketa osagarria behar duten gunetan kultura ondarearen mantentze eta esparru publiko eta pribatuen hobetze helburuei jarraipena eman ahal izatea.

## **4.- Proposatutako ekonomi-jarduera ereduaren justifikazioa:**

Aurrerakin honetan jasotako proposamenetatik irteten den jarduera ekonomikoen eredu jarraitzailea da, zerbitzu sektorean oinarritutako eredu bat ahalbideratuz eta, batez ere, merkataritza txikia eta ostalaritzan, bere aberastasuna gordetzeko. Hau bultzatzeko, alde zaharra erakargarri bilakatzeko eta bere biztanleen eta alboko guneen bizitza hobetzeko jarduketak planteatzen dira, era horretan bere protagonismoa indartuz herriko gizarte-bizitzan. Horretarako, bai Plan Berezia antolaketa xehatuak, bai bere ordenantzek, eskaintzaren oreka ahalbideratuko dute eta baita kokatzeko erraztasuna, beti ere, bere biztanleen ongizatea babestuz.

## **5.- Proposatutako ekipamendu eta azpiegitura ereduaren justifikazioa:**

### **5.1.- Sistema Orokorrak.**

Alde zaharra, hasiera batean, hornituta dago ekipamenduen eta azpiegituren ikuspegitik. Hala ere, beraien hobekuntza proposatzen da, bai kokapenari, bai tamainari dagokionez. Eredu orokor mailan, ekintza berri hauek proposatzen dira:

#### *Ekipamenduak.*

Erabilera anitzeko sarrera bikoitzeko eta estalki erabilgarriko eraikin bat egitea, alde batetik irisgarritasun irizpideekin portu zaharreko eta Basterre kalearen arteko kota diferentzia gainditzeko eta, bestetik, guneari erakargarritasuna emateko olatu-hormaren alderantz zabaltasun bat emanez.

### Azpiegiturak

Oinezko bihurtu eta zoladura berria eman komunikazio ardatz nagusiei, esateko, Etxeberria tar Kresentzia Kalea eta Eskinarruga Kalea Lamerarantz, etab.

Tala inguruan, dauden ekipamenduetatik hurbil (anbulategia, psikiatrikoa, kontserbategia, Kultur Etxea, Fontan Lobe Bizealmirantea BHI) gune leun eta libre bat lortzea, psikiatrikoaren itxiera-horma kenduz ambulategiko hormarekin lotzen duen gune arte (Arresi Kaleko bihurgunean), eta Ongintza Kalea eta Arresi Kalea oinezko bihurtuz Tonpoi Kaleko bidegurutzetik.

Energia elektriko eta telefono sarearen aireko lineak lurperatu.

Saneamendu sare orokorra hobetu eta sistema banakatuez ordezkatu.

Sare optikoko telekomunikazio sarea alde zahar osora zabaldu.

Herri-argiteri sistema ez eraginkorrak apurka-apurka ordezkatu.

Hiri-hondakin solidoen bilketa sarea hobetu, ahal den neurrian eraginkortasuna eta funtzionaltasuna galdu gabe, hiriaren irudia hobetu eta hesiak saihesteko.

### **5.2.- Tokiko Sistemak.**

“O.4\_KALIFIKAZIO XEHATUA” planoan islatzen dira grafikoki. Batez ere gune libreak dira eta administrazio eraikinen bat.

Bilbo, 2022ko ekaina.

Erredaktore-taldearen izenean:



Pablo Maguregui López  
Arkitektoa  
EHALO 4440



Markel Bollar Arrate  
Hirigintza Abokatua  
BAEO 4453

## DOKUMENTAZIO GRAFIKOAREN AURKIBIDEA

PLANOAREN IZENA	ESKALA 0 PLANOAK	ESKALA 1- PLANOAK
I.1_SEKTOREAK	1/1.000	-
I.2_EGUNGO ERABILERAK	1/1.000	-
I.3_GARAIERAK	1/1.000	-
I.4_1. SOLAIRUKO ESKEMA	1/1.000	-
I.5_ALTXAERAK	-	1/300
I.6_ESTALKIAK	1/1.000	-
I.7_ERAIKUNTZAREN EGOERA	1/1.000	-
I.8_INTERES ARKITEKTONIKO ETA HISTORIKOA	1/1.000	-
I.9.1_AZP_SANEAMENDU SAREA	1/1.000	-
I.9.2_AZP_HORNIKUNTZA SAREA	1/1.000	-
I.9.3_AZP_ELEKTRIZITATE-SAREA	1/1.000	-
I.9.4_AZP_GAS-SAREA	1/1.000	-
I.9.5_AZP_TELEKOMUNIKAZIO SAREA	1/1.000	-
I.9.6_AZP_HERRIKO ARGIEEN SAREA	1/1.000	-
I.9.7_AZP_HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK	1/1.000	-
O.1_PLAN BEREZIAREN MUGAKETA	1/1.000	-
O.2_LURZORUAREN SAILKAPENA	1/1.000	-
O.3_KALIFIKAZIO OROKORRA	1/1.000	-
O.4_KALIFIKAZIO XEHATUA	1/1.000	1/500
O.5_BALDINTZAPEN GAINJARRIAK	1/1.000	-
O.6_ARKITEKTURA ONDAREA	1/1.000	-
O.7_ARKEOLOGIA BABESTEKO GUNEA	1/1.000	-
O.8_PROPOSAMENAK	1/1.000	-